



AUKERA BALIATZEKO PREST

Bost proiektuk jaso dute Udalaren eta Kultur Mahaiaren Sorkuntza Beka berriaren laguntza. Hasi dira lanean 20



Alberdi-eneA

zure etxeraineko gubioa

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

683 704 750

JOSE DE ARTETXE, 8 KALEA



www.alberdienea.com

ERAKUNTZA BERRIA

54 ETXEBIZITZA

1, 2 ETA 3 LOGELA

3 LOGELA

235.000€^{IVA HAZTEA}

GARAJE ITXIAK
BIKOITZAK ETA
BANAKAKOAK

Zure oporretarako,
eskaintza
handi,
handiak...
amesten dituzu?

HEGALDIAK BILBOTIK

PRAGA-BUDAPEST

Irteera igandetan, uztailaren 3tik
abuztuaren 21era
8 egun, gosaria barne

980€ tik

POLONIA

Irteera astelehenetan, uztailaren 4tik
abuztuaren 22ra
8 egun, gosaria barne

1080 € tik

CROACIA & ESLOVENIA

Irteera asteartetan, uztailaren 5etik
abuztuaren 23ra
8 egun, pentsio erdian

1,350€ tik

Jose de Artetxe, 14 – AZPEITIA ——— 943 15 19 12

 **EROSKI** / bidaiak

Ametsetan? Egizu legar!



www.viajeseroski.es



uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarrria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 185.a (2016ko uztaila)
Urtea. XVII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 688883491 /
 uztarrria@uztarrria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Mailo Oiarzabal
Webgunea.
www.uztarrria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

2016KO UZTAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? ||||||||||||



iritzia

Inkesta. Iruñeako entzierroa ikusiko al duzu? **13**

mamia

Maite Etxezarreta. Korrikalariarekin eta mendizalearekin solasean. **04**
Klik! Sakona etxaldeko barazkiak, baraztetik otarreetara. **16**

Kultursahar Saharako historia jasotzeko eta berreskuratzeko egitasmoa. **24**

jakiteko

Atzera begira. 1960 eta 2014 artean Azpeitian izandako giza eskubideen urraketak, jasota. **34**

Ba al dakizu ingurumena herritik egunean aztertutako edukiontzi grisean %13,8 bakarrik zela birziklaezina? **Uztarrria**

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariatz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **gara** Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko deni.

30 euro dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

MAITE ETXEZARRETA

Korrikalaria

“Modan jarri dira mendi Lasterketak”

Kirolak garrantzia berezia izan du Etxezarretaren bizitzan. Eskalatzeari utzi eta mendi lasterketetan parte hartzeari ekin zion, iaz. 📌📷 Nora Alberdi

Aurreko urteko udazkenean hartu zuen parte lehenengo aldiz mendi lasterketa batean; Izarraitzen egiten den Zuzenien igoera bertikalean, hain zuzen. Ordutik, hainbat lasterketatara parte hartu du Maite Etxezarretak, eta “disfrutatzen jarraitzea” da bere asmoa.

Noiztik duzu lasterketetan parte hartzeko afizioa?

Beti izan dut mendira joateko afizioa, betidanik gustatu izan zait. Gazteagoa nintzela, eskalatzeko ibiltzen nintzen, eta eskaladari utzi nionean, astean hiru edo lau aldiz mendira joaten hasi nintzen. Mendi lasterketek eta bertikalek inbidia ematen zidaten, eta horiek prestatzen hasi nintzen buru-belarri.

Zer dela eta eman zenuen eskalada alde batera utzi eta korrikan hasteko jautzia?

Eskalatzeari utzi eta bospasei urtez, Xoxotera, Kakutera, Erlora edo Erniora joan izan nintzen. Mendiari lotutako kirolen bat egin nahi nuela eta, iazko udazkenean ekin nien mendi lasterketei. Gaur egun, modan jarri den kirola da, eta ia asteburuero izaten da lasterketaren bat. Gogo handiarekin parte hartzen dut, eta horrez gain, leku eta jende berria ezagutzeko aukera ematen didate.

Non sentitzen zara erosoago, mendi lasterketetan edo krosetan?

Mendian askoz hobeto sentitzen naiz. Krosetan, eremu luana zozenez, erritmo konstantea man-

|| DATUAK ||

|| **Jaio.** 1991ko ekainak 1.

|| **Herria.** Azpeitia. || **Bizi tokia.** Azpeitia. || **Lanbidea.** Irakaslea.



Etxezarreta izan zen emakumezkoetan azkarrena Hartu Trena Eguneko krosetan, maiatzaren 21ean.

tendu behar duzu. Mendian, berri, lehenik eta behin, aldapa bat igotzen duzu, gero pixka bat la-saitu egiten zara, eta, ondoren, beheraka zoaz; erritmo aldaketak daude. Bestalde, jende gutxiagok hartzen du parte, eta zeure erara joateko aukera izaten duzu. Antz gehiago daukate astebukera batean egiten ditudan mendi bueltekin lasterketekin baino.

Aurtengo udaberrian, Larraul-Ernio-Larraul lasterketan parte hartu eta irabazi egin duzu. Zer moduzkoa izan da esperientzia?

Ederra. Ez nuen espero. Kobaz koba lasterketan bigarren egin nuen, baina Larraulgo lasterketan, Nerea Amilibia nuen lehiakide. Biok goraka hasi, eta pixkana-



ka ikusi nuen aurea hartzen ari nintzaiola. Puntara heldu, eta bereraka, hortzak estutuz, helmugara lehenen iristea lortu nuen. Niretzat ikaragarriko lorpena izan zen Amilibiari irabaztea. Kontutan hartu beharra dago beste urteetan baino lasaiago dabilela, baina hala eta guztiz ere, oso polita izan zen lehenengo lasterketa irabaztea.

Zein da zure hurrengo erronka?

Lehenengo erronka orain gutxi egindako bihurritua osatzea da. Hori ondo sendatzen zaidanean, uztailaren 3an, Zumaian izango den Fytsch Trail maratoi erdian parte hartuko dut. Itsasoa eta mendia lotzen dituen lasterketa denez, esperientzia polita izango dela iruditzen zait.

Prestakuntza handia eskatzen al du horrelako lasterketak egiteak?

Egin nahi duzun lasterketaren araberakoa da. Ni bertikaletan hasi nintzen irteten motzagoak direlako, baina maratoiak egiteko, prestakuntza handiagoa behar da. Esate baterako, aurreko urteko bertikalerako modu jakin batean prestatu nintzen, baina gero, 20 kilometroko luzera duen eta malda handiak dituen Izarraizko mendi lasterketarako gehiago prestatu nintzen, bi edo hiru orduko ibilbidea baita.

Prestatzaile fisikorik ba al duzu?

Nire anaia aritzen da lan horretan. Bi edo hiru liburu irakurtzeaz gain, adituen elkarrizketak eta errepor-

tajeak irakurri ditu. Beraz, berak esaten dit gutxi gorabehera zer egin. Sentsazioen arabera ere jotkatzen dugu. Hilabete batean zenbait ariketa fisiko egin eta nekaturki banago, beste ariketa batzuekin probatzen dugu.

Zein izan da sekula egin duzun probarik gogorrena? Eta zein gogoangarriena? Eta zein etorkizunean egingo zenukeena?

Oraindik ez naiz lasterketa askotan irten, baina gogorrena egin zaidana Izarraizko mendi lasterketa izan da, desnibel handia duelako eta orain arte egin dudan luzeena delako. Hala eta guztiz ere, oso polita izan zen bertan irteeta aurretik antolatzen jardun bainintzen. Gehien gustatu zaidana, berriz, Izarraizko bertikala izan da, nire helburuetako bat zelako proba hori egitea. Azkenik, etorkizunean ez dakit zein proba egingo nukeen. Askok esaten dute Zegama-Aizkorri probatu beharra dagoela, baina oraindik ez naiz jarri pentsatzen.

Korrika egitea momentuko afizio bezala ikusten duzu edo pixkanaka-pixkanaka lasterketen munduan aurrera egitea da zure helburua?

Afizio moduan ikusten dut. Askok gustatzen zait mendira joatea. Nigatik balitz, egunero joango nintzateke, baina gorputzak ez dit uzten. Oso zaila ikusten dut etorkizunean ere lasterketekin jarraitzea, maila handia baitago. Baina, beno, nik momentuz disfrutatzen jarraituko dut.

Emakumeen artean ere mendi lasterketarako afizioa sortzen ari dela iruditzen al zaizu?

Baietz uste dut, baina oraindik mutilekin alderatuta, oso neska gutxi ikusten dira parte hartzen. Baina, adibidez, lasterketa desberdinetan hasi dira parte hartzen duten emakumeei omenaldiak-eta egiten, eta, horrek bul-tzatuta, animatu izan dira neskak. Neska guztiak animatuko nituzke probatzera.*

“Izarraizko mendi Lasterketa izan da orain arteko zailena”

“Krosetan baino erosoago sentitzen naiz mendian”

Plastiko hutsa

Hasieran esfortzu bat suposatzen zuen, jada ohitu naiz, balkoian antolatatu dut neure zabortegi partikularra. Lau pote ditut burdinezko armairutxo batean, dena txukun bisitaririk ez etortzeko, arratoiak kasu. Tarteka zalantzaren bat izaten dut, pote hau nora, beste kaxa hark papera eta plastikoa ditu, opiltxoan papera organikora ote... Herritik aparte bizi naizelarik, autoan poltsak hartu eta kalerako bidean botatzen ditut, bakoitza bere potera.

Igande gau aldera, afalostean, beste egiteko askorik gabe eta eguraldi ederrarekin, hankak martxan jartze aldera, hiru zabor poltsa ongi beterik eskuetan nituela, oinez bostehun metro inguru joaten, eta beste hainbeste itzultzen egin nituen zaborra botatzeko. Iritsi eta pote grisaren gaineko tapa txikia, txartelarekin irekitzen dena, apurtua zegoen. Tapa handia altxatu eta nire poltsa botatzera koan, hainbat organiko poltsa ikusi nituen bertan. Graziarik egin ez zidan arren, beno, ez da hainbesterako, erraz pipertzen naiz. Ondoren, pote marroira hurbildu nintzen, tapa txikiak, errefusarenak, zuen arazo bera zuen. Beraz kasu horretan ere, tapa handia zabaldu behar izan nuen. Hogeita hamar poltsa inguru zeuden bertan, gutxi gorabehera. Horietatik hamar izango ziren organikoarenak, besteak inguruko supermerkatuetako plastikozko poltsak ziren. Horrez gain, plastikozko zaku handi bat zegoen, baratzan botatzen diren belar-pozoin edo antzekoren bate-na zirudien, berdea eta zuria. Zaku horretan, ziurrenik, hildako animalia bat egongo zen, odolez zikindua zegoen dena eta untxien tripak ziruditenak ikus zitezkeen alde batean.

Haserreturik, norbait erraustegira botatzeko gogoz, sumindurik eta ernegaturik, aho-pean maldizioka egin nuen etxerainoko bidea. Argi dago, zaborra sailkatzen egin nuen esfortzu guztia alferrikakoa izan zela, eta hori egunero horrela bada, argi dago norbait ari dela nire esfortzua izorratzen. Bosga-



||||||||||||| **egoitz arruti** |||

||| Sumindurik eta ernegatuta, aho-pean maldizioka egin nuen etxerainoko bidea

rren edukiontzia horixe du emaitza, nire begiek ikusi dutena, behinik behin. Baina zuek lasai, ez duzue kezkatzeko arrazoirik. Momentu honetan ez naiz Azpeitian bizi, eta denok dakigu horrelakorik ez dela pasatzen Azpeitian.

Artifizialagoak

Itxuraz, ziurtatua dugu bizirauten dugun artean munduak jarraituko duela irauten, aldatuko da, baina tira, bizitzen jarraitu ahalko dugu natura zanpatzearen eta birrintzearen trukean. Beraz, zertarako hartu alferrikako lanik: *Carpe diem*.

Aukera bikaina izan dugu mundua ezagutzeko, bere edertasuna suntsitzeko plazerra hartu dugu, orain ez gara ba sentimental jarriko, ezta? Geu bere zati izanik ere, mundu paralelo bat eraiki dugu, naturaren legeak eta erritmoak menperatu nahi izan ditugu, azkarago mugitzen gara, urrutiago heltzen gara, gero eta gauza gehiago ditugu, ormigoia gero eta gorago doa. Baina azken finean, pauso bakoitzean ginetik urrunago goaz, artifizialagoak gara, plastikoko hutsa.✳



INTZA ETXEBERRIA AGIRREZABALA Fisioterapeuta-osteopata

“Bizi kalitatea hobetzen Laguntzen dute fisioterapiak eta osteopatiak”



Intza Etxeberriak (Azpeitia, 1986) fisioterapia ikasketak egin zituen Zaragozan (Espainia), eta sei urteko prestakuntza masterra du osteopatian. Bederatzi urteko lan esperientzia du, eta gaur egun Azkoitiko Jandonianiz kaleko 5. zenbakian dagoen Izadia osasun zentroan du bere kontsulta.

Zertan oinarritzen da osteopatia eta fisioterapia tratamendua?

Gizakion oreka lortzeko erabiltzen den gorputz osoko tratamendua da. Besteak beste, barne egituren arteko loturak –hezurrak, giharrak, organoak...– zein harreman afektibotakoak –lana, kirola, elikadura, loa... – elkar ulertu eta lantzen dira, gorputz atalen mugimendua berreskuratuz,

gizakien bizi kalitatea hobetzeko. Izan ere, eguneroko bizimoduak oreka hori okertzen du zenbaitetan, eta mina, ondoeza eta gaixotasunak azaleratzen ditu gure gorputzean. **Zeintzuk dira zure bezeroak? Zer motatako arazoak izaten dituzte?**

Adin guztietako bezeroekin lan egiten dut, eta etengabe ari naiz trebatzen. Besteak beste, honako arazo haueetan esku hartzen dut: lokomozio aparatukoak –bizkarreko, aldakako... lesioak, lumbagoa, ziatika eta bihurdurak–; garezurrekoak –buruko mina, bertigoa, belarriko zarata, begietako arazoak–; nerbio sistemakoak –antsietatea, urduritasuna, lo egiteko arazoak–; ATMkoak –masailezurra,



hortzak–; digestio aparatukoak –idorreria, bihotzerrea, haizeak, kolikoak–; arnas aparatukoak –bronkitisa, asma– eta sistema hormonalekoak –hileko minak, hileko irregularrak–; genitoural aparatukoak eta ugalketa aparatukoak; eta alergiak. **Erditze aurreko eta ondo-**

rengo ikastaroak ere eskaintzen dituzu.

Bai, hala da. Gurasoei behar duten informazioa eta baliabide guztiak ematen dizkiet: masaje perineala, arnasketak eta dilatazio prozesuko ariketak, esaterako. Helburua da gurasoek erditze garaia ilusioz, konfiantzaz eta lasai igarotzea.

MILAR LARRAMENDI



Smart Retail sistema berria



Larramendi

Sukalde Gunea



Eskerrak azpeitiar eta azkoitiar guztioi. 2016 oparoa izan dezazuela!

AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16
Tel. 943 85 18 97 www.milarlarramendi.com



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00



Garagardo fresko bat

Irakurtzen ari zaren hau da Uzta-rrian, oraingo behintzat, idatziko dudan azken artikulua. Oraingo diot, ez baitago jakiterik etorkizunak zer ekarriko digun. Beraz, nire agur honetan ez zait ezer hoberik otu, honaino ekarri gaituen biderei erreparatu eta zuekin elkarbanatzea baino.

Nire kolaborazioak 2014. urtean hasi ziren. Orduz geroztik, artikulua kontuan hartuta, hamaika idatzi ditut aldizkari honen orrialdeetarako. Bi hilabetero argitaratu dira, bai webgunean eta bai paperezko bertsioan. Lehen kolaborazio hartan adierazi nuen nire izenpean agertzen ziren hizki pilo haiek zientzia gaien berri ematea zutela helburu. Eta nik uste, hori behintzat, bete dudala.

Atal honetan zientzia gai eta berri asko jorratu ditugu. Azpeitia inguruan topatu zuten paleolito garaiko haztarnategia eta Europako Espazio Agentziaren Rosetta misioa ekarri genituen batera, gure etxe alboko txokoak eta milioika kilometrotara dauden kometak, hain urrun ez daudela erakutsiz.

Artea ere uzartu genuen zientziarekin, horretarako zinea erabiliz. Zientzialari askoren bizitzak zinea eramatea zeinen ideia ona zen erakutsi nahi izan genuen. Horrek gogorazti dit, orain dela gutxi Ramanujan matematikari indiar handiari buruzko film bat estreinatu dutela. Ezin dizuet aholkatu, neuk ere ez baitut oraindik ikusi, baina itxura ederra du.

Gizartean oihartzun handia izaten ari diren hainbat gairi ere eutsi diegu: fracking-a, aldaketa klimatikoa eta txertoen inguruko polemika faltsuak. Gai horiek erakusten dute zeinen garrantzitsua den gizartean kultura zientifikoa hedatzea. Nola eztabaida daiteke fracking-aren inguruan gutxieneko oinarri zientifikoa izan gabe? Nola ez gaituzte bada engainatuko txertoak ez jartzearen kontuarekin, ez baditugu datuak behar bezala ezagutzen eta ulertzen?

Mundu mailan jazotako hainbat berri zientifiko ere ekarri ditugu orrialde hauetara. Uhin



|||||||gorka azkun|||

|||Nire izenpean agertutako hizki pilo haiek zientzia gaien berri ematea zuten helburu, eta nik uste, bete dudala

grabitazionalak lehendabizikoz hauteman zirenean LIGO proiektuan, uhin horiek zer ziren eta zergatik zen aurkikuntza hura hain garrantzitsua azaltzen saiatu ginen. Adimen artifizial batek Go mahai-joko konplikatuan munduko jokalaria onenari irabazi zionean ere, hemen hitz egin genuen. New Horizons misioa ere hizpide izan genuen, zientzian dirua gastatzearen garrantzia azpimarratu nahian.

Ezagutza zientifikoaren garrantzia

Zientziak gure bizitzak gizatiarragoak egin ditu. Hori entzun nion behin Juan Ignacio Perez Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedraren zuzendariari. Orain dela ehundaka urte, jendea urte gutxiago bizi zen, eta urte horien kalitatea askoz eskasagoa zen. Aurrera egin dugu, eta hein handi batean, ezagutza zientifikoari esker izan da. Pedro Miguel Etxenik zioen bezala, Carlos V.ak, bere botere eta aintza guztiarekin ere, ezin zuen garagardo fresko bat edan nahi zuenean. Guk bai, ordea.✱





@Eregi_EK



Eregi Euskara Eta Komunikazioa

Ekin  eraiki

 **EREGI** 

Zerbitzuak

Marka nortasuna

- Aholkularitza eta kudeaketa

Komunikazio estrategia

- Komunikazio planak
- Komunikazio kanpainak

Irudia eta diseinua

- Identitate bisuala: logotipoa eta euskarrien diseinua
- Argitalpenak: liburuak, aldizkariak, katalogoak...
- Seinaleztapena
- Argazkiak
- Ilustrazioak
- Bideoak

Web

- Web orriak
- Sare sozialak
- Tablet/smartphone aplikazioak

Harreman publikoak

- Prentsa bulegoa
- Ekitaldiak, produktu aurkezpenak...

Hizkuntzak

- Testuen erredakzioa
- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara, gaztelania, ingelera, frantsesa, katalana, galegoa...



Goiko kalea, 5 - 3A - 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)



943 08 06 88




eregi@eregi.eus



www.eregi.eus

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Euskaraz funtzionatu arte

Erabilera Plana indartzeko neurriak jarri ditu mahai gainean Azpeitiko Udalak. UEMAKo teknikari bat arduratuko da planaren jarraipena egiteaz.  Uztarrria

Euskara lehenesten duen udala izatetik, salbuespenak salbuespen, euskaraz funtzionatzen duen udala izatera" iritsi nahi du Azpeitiko Udalak eta, bide horretan, udal barruko Euskararen Erabilera Plana "indartzeko" konpromisoa eta neurriak aurkeztu berri ditu.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide da Azpeitia eta UEMAKo teknikari bat izango da erabilera planaren jarraipenaz arduratuko dena. UEMAK lau azpialdetan banatzen ditu udalerrriak: Abian daudenak (erdaraz aritzen direnak), Magalean dau-

denak (elebidunak), Gorabidean daudenak (nagusiki euskaraz egiten den herriak) eta Tontorrean daudenak (euskara hutsez aritzen direnak). Azpeitia Gorabidean dago egun eta helburua Tontorrean egotea da. Horretarako, epe motz, ertain zein luzerako neurriak eta pausoak proposatu dituzte.

"Hizkuntzari dagokionez Azpeitia Euskal Herrian eredu dela ikusita, uste dugu Azpeitiko Udalak ere eredu izan behar duela. Horregatik, salto berri bat eman nahi dugu", esan du Josu Labaka Euskara batzordeburua. ✖



Josu Labaka Udaleko Euskara batzordeburua eta Miren Etxenike UEMAKo teknikaria.



Enok Sudupe.

ESANA DAGO

III "Urola Erdiak erabateko menpekotasuna du energiarekin; Azpeitiak ere bai"

III "Kontsumitzen eta ekoizten dugun energia berdea izatea lortu behar dugu"

ENOK SUDUPE
Piztu lantaldeko kidea

III "Egunero orduerdi edo ordubete eskaintzen diot argazkigintzari"

III "Ingurukoari eta atentzioa deitzen didanari ateratzeko dizkiot argazkiak"

IRENE LARRAÑAGA
X/366 proiektuaren egilea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

PROXIMITY
CUSTOMER

AIZPURU

Tel.: 943 81 23 59 aizpuru@aizpuru.net
Fax.: 943 81 22 81 www.aizpuru.net

Arretxe 17, 20730 AZPEITIA
Zure autoak behar duen edozertarako!

(t)artu

Euskaltzaindia lanean jarri behar dut. Beti egin dena eta beti egingo dena: tartu. Zer? Bai, tartu. Definizioa litzateke, guri komeni zaigunean, arrakasta lortu duen norbait gutar egitea. GuTARTU egiten dugu. Bilbotarrek diote bilbotar bat nahi duen lekuan jaiotzen dela. Ba, tartzea, teoria horren 3.0 bertsioa litzateke.

Porrotak aitarik eta amarik ez duen bezala, jakina da garaipenak familia latza osatzen duela. Tartzearen trantzea, gainera, oso kuriosoa eta polita izaten da gurea bezalako herrietan. Azkeneko adibidea Aramako mutil

gaztearena da. Orain urtebete Txikuri pilotalekura etorri zenean, xapoen herrian, lau katuk ezaguzen zuten mutikoa. Urtebete pasatu denean, benetan diotsuet, tarteka, neure odolekoa dela ere serio demonio pentsatu dudala. Ezagun eta famatu egitearekin bat, aramarra etxeko egin dugu. Baietz ba, aitona Beizamakoa, gure familiaren oso laguna; aitaren anaia, bai, pilotariaren osaba, azpeitiar batekin ezkontuta, alegia, txapeldunak izeba xapo-xapoa duela; txikitan saskibaloian jokatzera gurera etortzen zela, denak oroitzen gara *Xubi*-rekin nola entrenatzen

zuen, bai noski! Eta iazko saninaziyuetan bota zuen juerga –agian ez zen etorri ere egingo, baina berdin dio–, gure semearen lagunekin bota zuela...

Berriro diot, kontatu dizkidatenak entzunez, une batzuetan neure anaia gaztea izan zitekeela ere pentsatu dut. Baina ez, nire anaia bakarra gure herriko taldeak mailaz igotzen dituen txoferra da, munduko txoferrik onena. Eta horrek gutartu beharrik ez du. Eta horrelako asko idatzita, Txetxu, gutartzearen kontrakoa hiri egingo ditek. Ez horixe... Akerxapo, jaio, bizi eta hil.✘



txetxu urbieta

IKUSTEKOAK



▲ UZTARRIAREN ERREPORTAJEA ERAKUSLEIHOAN.

Mende laurdena bete du aurten Kimetz ile-apaindegiak. Urtemuga borobila aitzakia hartuta, erreportajea egin zuen Uztarriak apirilko aldizkarirako, eta aldizkari haren aleetako bat Kimetzeko erakuslehoan jarrita izan dute. Museo bateko erlikia baten pare, atril eta guzti jarri dute, handik igarotzen direnek erreportajea begien parean izan zezaten. 📧📷 Maialen Etxaniz✘

███EKAINEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...████████████████████



Azpeitiak Hitza hartu zuenekoa

EKAINAK 5. Egun handia izan zen azpeitiarrontzat, eta izango da gure memoria kolektiboan. Herri xeheak antolatutako ekimen bat zein handia izan daitekeen ikustea ederra da gero. 'Politiko ofizialen' esku ezin da utzi dena. Gure lana ezin da izan lau urtez behin botoa kutxan sartu eta hurrengo bozketara arte itxoitea. Denok gara 'politikoak' eta denok saiatu behar dugu gauzak aldatzen. Azpeitiarrok demostrazio bikaina egin dugu. Hori eginda gero, zer ez ote dugu egingo aurrerantzean!



████████████████████maite garmendia████████████████████



Ura soilik ez

IBAIA. Ura baino eraman behar ez luketen ibaiak zabor-tegi bihurtzen dira batzuentzat. Zabor ontziak edonon, baina kontzientzia auzoan. Bolondresak aritu behar, zabor-keriak dakartzan ondorio tamalgarriak plazaratzen. Oraingoan ikasleak aritu dira ibaiak garbitzen. Bejondeizuela.



San Juan gaua

JAIA. Erljio katolikoaren eraginpean jaio garenok San Juan gaua bezala ezagutzen duguna aurrekoentzat emankortasunaren jaija zen. Lurra bere oparotasunean agertzen zen, elurrak urtu ondoren; jana ugari eta argia, egun luzeak ekarriko zuena. Sua egun horretatik aurrera ahultzen

joango den eguzkiari indarra emateko, eta jendea elkartzeko akelarreetan bezala. Edo ura. Uretan sartzen denak osasuna izango omen du urte osoan. Edo zuhaitza. Urrestillan festa zuhaitza altxatzearekin hasiko dute eta amaitu kentzearekin. Ondo pasatu sanjuanak!*

INKESTA

iruñeako entzierroa ikusiko al duzu?

 Ainitze Agirrezabala

INAZIO AMILIBIA

78 urte



“Neuk ez dut afizio handirik. Andreak egunero ikusten du; hots egin beharrik ez du izaten jaikitzeo. Ikusten dudanean norbait harrapatzea gustatzen zait, estuasun pixka bat izatea”.

PAKO OLAIZOLA

88 urte



“Etzeko denak jaikitzen ditut telebistan ikustera. Iruñean egin nuen soldaduska, ia hiru urtez, eta entzierroan sekula atera ez arren, askotan ikusi dut zuzenean. Han ibili dadila sasoko jendea, badaezpada”.*



IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com



KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 55 08
Faxa.: 943 15 03 62

Azpeitia, Christiania berria?



chusemi vicente

Ofiziala da: Azpeitiko biztanleok Euskal Estatu independente bateko kide nahi dugu izan. Horrela ondorioztatzen du herri galdeketaen emaitzak, herriak berme osoz babestu baitzuen horren aldeko apustua, botoen % 95 lorturik.

Parte hartze kopuruari dagokionez, lortutakoa pozgarria den arren, prozesu parte-hartzaile guztietan bezala, azken emaitzak baino bidean landutakoak garrantzi handiagoa izaten du, eta horretan Hitzartuk egindakoa txalotzekoa izan da. Makina bat ekimenez girotu zuten prozesua, herriko eragile desberdinak inplikatu eta harreman-sareak sendotuz. Zorionak guztioi!

Ekainaren 5ean, Euskal Herriko hainbat herritan eginikoa haztegi moduan ulertu behar dugu, etor daitekeen kontsulta orokorrari bide eta bermea emango diona.

Baina, bitartean zer? Zergatik ez Azpeitia independente bat? Ideia zoro hori buruan bueltaka

nuela, adibide bitxi batekin egin nuen topo: Christiania.

Christianiako hiri askea, Kopenhage-ko bihotzean kokatzen den auzo autogobernatua da, eta sirenatxoarekin batera, hiriko lekurik erakusgarriena bihurtu da. Urtero, milaka turistak bisitatzen dute, kasu askotan droga bigunekiko duen permisibitateak erakarrita, baina Fristaden Christiania porrero komunitate bat baino askoz gehiago da.

Erabaki guztiak batzar irekietan hartzen dituzte, demokrazia zuzenaren sistema erabiliz; etxebizitzak komunitatearenak dira, zerga sistema propio bat dute, eta hazkunde kulturala zein ingurune-jasangarritasuna dira “estatu” txiki honen ardatzak.

Legaltasunari begira, amets libertario hau gurean martxan jartzea zaila den arren, aprobeitza dezagun ekainaren 5eko aitzakiaz sortutako sinergia Azpeitia leku anitzagoa, jasangarriagoa eta justuagoa izan dadin. Gure esku ere badago.*

galdetzen hasita, artzubiko biribilgune ondoko parkeak edo plazak ez al du izen ofizialik merezi?  Uztarria

Arnasa

Duela gutxi, klasean munduko erlijioez ari nintzela, esan nuen: “Erljio guztien egiazko muina espiritualtasuna da”. Ikasle batek eskua altxa eta galdetu zidan: “Eta zer da zuretzat espiritualtasuna?”. “Espiritualtasuna arnasa da”, erantzun nion.

Zertxobait harriturik begiratu zidan, eta berak bezala 60 ikasleetako beste hainbatek. “Nola? Arnasa?”. Ba bai, arnasa. Biziaren arnasa hartu eta ematea: horixe da espiritualtasuna.

Arazoa ez da erlijioa bai ala ez, baizik arnasa bai ala ez. Erljioek arnasa zabaldu izan dio jende askori, zalantzarik gabe, baina ito ere bai beste askori, hainbat arau eta sineskizun estugarri direla medio.

Badirudi gure gizartean erlijio tradizionalak inor gutxiri ematen diotela arnasa, edo haien hizkuntza zaharra ulertzen ez delako jada edo ez delako jada ulergarri, latina eta grekoarekin gertatzen den bezala. Nolanahi ere, arnasa emateko edo hartzen laguntzeko gauza ez diren erlijioak alferrik dira, latina eta



joxe arregi

grekoa bezala, ulergarri ez zaizkigun heinean.


Erljioak ez dira ezinbesteko, baina arnasa bai. Eta gaur bereziki, ausartuko nintzateke esatera. Nor baino nor, elkarrekin eta geure buruarekin lehia estuan, arnasestuka, abiadura eroan, herioan bizi garenean, eta marko erlijioso eta kultural zahar tinkoak erori diren honetan, hainbat ziurtasun galdu dugunean, nabariagoa da arnasaren premia. Edo espiritualtasunaren premia, erlijioaz harago.

Bizi-arnasa: barruko bakea, ontasun zorionsua, sentsibilitatea, injustiziekiko intsumisioa, izaki guztien gupida, hurkotasuna eta zaintza, geure egoaren tiraniatik libre izatea... Horri deitzen diot espiritualtasuna.

Tenpluan edo mendian, bakardadean edo lagunartean, bazter isilean edo herri-ekintzan, edo bai batean eta bai bestean... non eta nola zeuk ikusi, baina har ezazu arnasa. Biziaren Arnasa. Eta dei iezaiozu nahi duzun bezala.*

HAU HOLAXEENK

"ERLIJIOZKO SINISMEN ZAHAR HURA ASPALDI GALDU NUEN,
 BAINA EGUNERO EMATEN DIZKIOT ESKERRAK
 ENEKO LOIOLAKOAREN ITZALARI
 KONPAINIA MULTINAZIONAL EDER BAT
 FUNDATU ETA ARMATU ZUELAKO.
 HOLAKORIK IZAN EZ BALITZ,
 FABRIKAZ ETA ZIKINEZ BETETAKO
 PARAJE ITSUSI BAT IZANGO ZEN
 AZPEITTIK AZKOITIRAINOKO
 EREMU OSOA".



INAKI SEGUROLA



Laino beltzak istriborretik

Hurritz, ederra izan zen Karibeko hondartzan ekainaren 5eko ilunabarrean egin genuen festa. Lortu genuen! Alferrik esango dute hura *gezurretakoa* izan zela. Milaka herritarrek erabakitze eskubidea nola gauzatu zuten ikusi genuen.

Oraindik ronaren hondarrak aho sabaian antzematen ditudala, kezka bat ari zait hazten ordea. Esan nizun, garaipen txikietatik porrot handietara doaz gure itsasontziak. Mastaren puntara igo eta gugana abiada bizian datozen lainoak ikusiko dituzu. Ez dute kolorerik, gaua bera baino beltzagoak dira.

Badakizu nola sortzen den laino bat, Hurritz? Eguzki izpiekin itsasoko ura lurrunduta egiten da. Zerura igo eta han goian kondensatu egiten da gero, eta lurraren gainetik pasatzean euri bihurtuko da. Ondoren, ura berriro erreketan bildu eta itsasora itzuliko da.

Baina ekialdetik datozen hauek bestelakoak dira: lurrean landatutako tximinia batek jaulkitzen ditu. Ez dakarte ur garbia ibaietara; zaborra dakarte lurrunduta. Gainera jausiko zaizkigu milaka basura poltsa euria egitean.

Egin zen zikinkeria hau geratzeko saioa: zaborra biltzeko sistema aldatu zen, ahal zen

guztia birziklatzera jarri ginen. Zero zabor. Erraustegia egiteko plana bera ere geratzea lortu zen. Baina lehia politikoak ez daki osasunaz, eta azkenean diru eta botere goseak berriro berea lortuko duela dirudi: tximinia altxatuko dute Zubietan.

Hurritz, erraustegiaren kontrako mezu hau ikusi nuen duela gutxi horma batean pintatuta: *burua ondo daukanak ez du bere etxe ondoan nahi, bihotza ona daukanak besteen etxe ondoan ere ez du nahi*. Lehen irakaspen bezala ez duzu batere txarra. Bizitza baita hemen handiena! Gurea eta besteenaa.✘



|||||xabi borda|||||

Erotikan Plax!

Ogibidez kale garbitzailea, sexu kontuak hizpide hartu eta Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza zerbitzuko enbaxerak erantzun ditu Alex Uzkizak.

Azpeitian gero eta garbiagoak edo zikinagoak gara?

Garbiagoak behintzat ez nuke esango.

Eta sexu kontuan?

Gauza batzutan garbiagoak bagina eta beste batzutan zikinagoak hobe, bietatik behar du. Kar, kar, kar.

Sexualitatean zerbait botako zenuke zaborretara?

Zeloak, lotsa, egoismoa, nahi eta ezina... Funtsean, beldurra.

Eta zer birziklatuko zenuke?

Denok dugu zer hobetu. Esaterako, hainbat komentario 'matxito' etortzen zaizkit burura.

Asteburu edo jai egun ondo-renean zer aztarna aurki daitzake Azpeitian?

Komuneko papera, kondoiak, arropak, konpresak, bideoak, kontsoladoreren bat... Denetarik.

Sexualitatea kalean presenteko dago. Zein dira zehazki jo-

|||ALEX UZKIZA QUINTANA|||

Adina. 30 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Ikaslea eta kale garbitzailea.



laserako txokoak?

Zelai luze, frontoi txiki ingurua, Santutxo, Loiola... Egia esan, jaietan, urrutira joan gabe denetik aurki dezakegu edozein tokitan.

Piropoak bota edo jaso?

Ez naiz piropoak bota zalea, eta jaso, akaso, festetan bakarren bat

bai, baina daukagun zaratarekin ez dago entzuterik, neska!

Anekdotaren bat?

Behin, Loiolara bidean, banku batean, tanga bat eta gorbata bat aurkitu nituen. Ez al da kuriozosa?

Gustuko usain bat?

Asko ditut. Bainila usaina oso gus-

tuko dut. Baita lanean nabilenean laranja zitriko usaina usaintzea ere.

Jaki bat...

Garaian garaikoa bada edozer.

Abesti bat...

Mikel Urdangariren 'Zurekin'. Abesti berezia da niretzat.✘

|||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, uztailean: hilaren 2an
(10:00-13:00).



|||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)|||



Ortutik otarrera

Urtebete da Ioritz Igarataundi eta Aiora Etxeberria otarreak osatzen eta hasi zirenetik. Prestaketa lanak ez dira ordu gutxiko kontua. 📌📷 Maialen Etxaniz



▲ BILKETA.

Igarataundi eta Etxeberria, astero, astelehen goizetan hasten dira ondoren otarreetan jasotzen dituzten barazkiak biltzen. Berdin izaten die zer eguraldi egiten duen, "zer erremedio". Izan ere, hurrengo egunerako, astearte arratsalderako, otarre guztiak prest izan behar izaten dituzte. Pazientzia eskatzen duen lana bada ere, gehien gustatzen zaien egitekoa da barazkiak biltzea.



▲▼ GARAIAN GARAIKOAZ HARAGO.

Barazki batzuk beti jasotzen dituzte: tipula, tipulina, patata...Beste batzuk, aldiz, sasoiaren araberakoak izaten dira. Lore edo barazki bereziren bat ere jasotzen dute astero, aromatikoak edo Euskal Herritik kanpokoak.





▲ GARBIKETA LANAK.

Behin asteko otarreetan banatuko dituzten barazkiak ortutik jasota, horiek garbitzeko txanda izaten da ondoren. Garbiketa lanetan Komuntzo baserriko fsenideek laguntzen diete Igarataundiri eta Etxeberriari. "Zenbat eta esku gehiago, hobe", diote.

▶ OTARREAK BETETZERA.

Hiru lagunen artean muntatzen eta osatzen dituzte 48 otarreak. Horretarako ere laguntza behar izaten dute, eta "inguruan harrapatutako denek" bota izan ohi diete esku bat.





◀▲ **BARAZKIAK, ETA GEHIAGO.**

Barazkien inguruko informazioa eta horiekin egin daitezken errezetak jasotzen dituzte otarreetan. Kontserbak, gazta edo etxean egindako produktuak ere banatzen dituzte.

▼▶ **BANAKETA BERTATIK BERTARA.**

Astelehenetan banatzen dituzte lehen otarreak, eta gainerakoak asteartean. Sakona etxalde ekologikoan egun osoan zehar bertan banatzen dituzte. Aldiz, Soreasuko Elkartegian eta Despensata Naturalean, ordutegi jakinean. Getariara eta Zarautzera ere joaten dira, eta astean ordu erdiz herri horietako plazetan izaten dira banaketa lanetan.



Sorkuntzari bultzada

Udalak eta Kultur Mahaiak lehen aldiz banatu dituzten bekei esker kultur arloko bost proiektu garatuko dituzte herriko hainbat gaztek. 📧📷 Mailo Oiarzabal

Aukera" eta "bultzada" dira Udalak eta Kultur Mahaiak aurreko lehen aldiz eman dituzten sorkuntza beken hartzaileek gehien errepikatzen dituzten hitzak. Ia guztiak bat datoz, halaber, bekarik gabe seguruenerik ez lieketela, momentu honetan, orain abian jarri dituzten proiektuei eutsiko; eta ez gogo faltagatik. Gazte sortzaileentzako akuitu izateko jario diren laguntzak –sei mila euro, guztira– jasotzeko hamar proiektu aurkeztu zituzten, eta bost dira beka jaso dutenak. Honako hauek, hain zuzen, egileek beraiek azaldua.

FESTA EREDUEN DOKUMENTALA

■ Erik Aznal (1993), Maialen Etxaniz (1994), Anartz Izagirre (1994) eta Garazi Lazkano (1994).

“Egundoko aukera da”

“Herri baten identitatea indartzeko baliabidea dira festak. Ikusten genuen Azpeitiko festa ereduaren eman direla aldaketa batzuk.



Ezkerretik eskubira, Maialen Etxaniz, Erik Aznal, Garazi Lazkano eta Anartz Izagirre.

Azpeitian, oro har, komunitatea bera aldatu egin da, baina nahi genuen hausnarketa bat egin, horrek benetan eragin al duen festa ereduaren aldaketa bat, edo aldaketak eritimo berdinean eman diren. Geure artean ere,

festa eredu berdina partekatzen dugun arren, hori ulertzeko nabardurak genituela ikusten genuen.

Festek kulturaren toki inportantea betetzen dutela iruditzen zitzaigun, eta zer esanik ez

Azpeitian. Herritar orok dauka bere festa erdua eta festak bizitzeko era. Orduan, festak nola bizi ditugun azaldu nahi genuen, festek denboran zehar zer bilakaera izan duten. Eta aldaketa eman denean, zer eremutan eman den: zeintzuk ziren lehengo helburuak, zeintzuk oraingoak; nola egiten zen eta nola egiten den espazio publikoaren erabilera...

Herriko festetan parte hartzen duten eragile guztiei ahotza ematea nahiko genuke. Gure helburua ez da praktika zehatzak epaitzea. Hausnarketa bat zabaltzea da nahi duguna. Eragile hauek denek hartzen dute parte festetan eta egitarauan: nola eragiten du horrek Azpeitian festak bizitzeko dugun moduan? Eragile horiek herrigintzaz ari badira festak antolatzen, hori nola islatzen da eta zer ekarpen egiten dio festa ereduari?

Festa egunak dira egin nahi dugun hausnarketa hori islatzen duten ispiluak eta beharrezkoa izango da horietan fokua jartzea. Baina gainbegiratu eta hausnarketa orokorra egitea da helburu nagusia. Badakigu, baita, ez dela Azpeitian festa ereduaren gainean egingo den lehen hausnarketa; egin den ibilbidea eta gaur arte egin izan diren hausnarketak ere jaso nahi ditugu.

Uste dugu denoi tokatuko zaigula denetik pixka bat egitea. Nahiz eta laurok komunikazio arloan ikasketak egindakoak garen eta elkarrekin gauza txikietan-eta lan egin izan dugun, lehenengo aldia da horrelako proiektu bat hutsetik sortu eta eraikiko duguna. Esperientzia oso polita eta aberasgarria izango da guretzat.

Gure arloan oso zaila da proiektu bat garatzea, baliabide eta aurrekontu aldetik, eta horrelako beka bat egundoko aukera da. Bekarik gabe garatu beharko bagenu, seguruenik une honetan ez genuke planteatu ere egingo. Bekak hasteko behar genuen bultzada hori eman digu, bestela gehiago kostatuko litzaiyuke. Orain ja ezin dugu egin gabe utzi!

Oraintxe bertan, gazteoi iristen zaizkigun mezu guztiak dira 'ekin', 'sortu', baina geure burua prekarizatuz, inongo baldintzarik eta baliabiderik ez zaigu eskaintzen. Beka hau bada oinarri zehatz batzuetan sortzeko eta



Ezkerretik eskubira, Iraia Bereziartua, Eider Bereziartua eta Egoitz Arruti.

ekiteko; eta helburu jakin batekin, herriari zerbait eskaintzea. Gazteen artean badago gauzak egiteko gogoia, eta aukera eman zaigunean ikusi da hori, aurkeztu diren proiektu guztiekin. Gogo hori aprobetxatzen jakin dute bekarekin. Azkenean, bost proiektu bermatu dituzte Azpeitiarentzat eta, gainera, sormen sarea sortu dute”.

‘INHARRAK’

||| **Egoitz Arruti** (1980), **Eider Bereziartua** (1991) eta **Iraia Bereziartua** (1988).

“Zeozer egitea nahi genuen”

“Izena aldatu diogu bideo poesia musikatuaren proiektuari: *Keriak*-en ordez, *Inharrak* jarri diogu; argi izpi esan nahi duen ‘inar’ hitzaren moldaketa bat da. Eta gure barruko zera ilunak argitara ateratzeaz ari garenez, egokia iruditu zitzaigun.

Garbi geneukan zeozer egitea nahi genuela, baina agian ez oso garbi zer. Musika, irudiak eta hitzak hirurok partekatzen ditugun zaletasunak dira. Zerbait sortzerakoan, horiek dira gure eremuak: Iraia musikan dabil, beste biok denetik egiten dugu eta ezer ez...

Orain gertatzen zaiguna da, ideia pila bat ditugula, eta horiek zehaztu egin behar ditugu, bideratu. Gai bat hartzen dugu eta haren gainean hasten gara lanean, baina bakoitzak oso modu diferentean ikusten ditu gauzak... Lanak banatzea eta denbora bat hartzea behar dugu.

Urte bukaerarako lau ikus-entzunezko egin behar ditugu. Uztail bukaerarako edo abuztu erdirako lehenengo bukatuta edukitzea da geure buruari jarri diogun erronka. Zailena hasierako hori izango dela iruditzen zaigu, proiektua bera hastera. Irudiak, musika eta testuak, denak guk sortutakoak izango dira, originalak. Testu batzuk badauzkagu, irudi batzuk ere bai... eta musika Iraiaren buruan dago momentuz! Seguruenez sokazko instrumentuentzako musika izango da; perkusio pixkat ere bai, agian. Ikusi egin behar gero, grabatzerakoan, zenbaterainoko mugak daudden. Grabaketak Zubizarren egitea da gure asmoa.

Webgune bat sortu nahi dugu eta, egin ahala, bideoak han jarriko ditugu, nahi duenak ikus ditzan. Sare sozialetan ere zabalduko ditugu. Berez, ideia aurkezpen bat edo zuzeneko emanaldi bat egitea zen; ikusi egin behar nola, baina asmoa hori da, polita izan-

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**ALUMINIOS
AZPEITIA**
ARRETXE KALEA, 13 - 20730 AZPEITIA
TEL. 943 81 38 32 - FAX 943 81 67 40

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

►go litzateke. DVD batean grabatzea ere bai, agian.

Bekarik gabe, ia seguru ez ginela animatuko. Guretzako oinarritzakoa izan da. Oso ondo dagoela iruditzen zaigu, nahiz eta egia den, hainbeste proiektu aurkeztuta, ekonomikoki motz gelditu dela azkenean. Baina guk esker ona besterik ez daukagu eta, horregatik ere, nahi dugu lan polit bat egitea, Udalak ikus dezan pena merezi izan duela”.

EUSKAL MITOLOGIAKO TXOTXONGILOAK

|||Iban Bergara (1986).

“Aurrera begira, auskalo”

“Betitik gustatu izan zait euskal kulturaren mundua. Txikitatik, kirola baino gehiago gustatu izan zait bertsoen, txotxongiloen edo antzerkiaren mundua, eta hortik datorkit zaletasuna.

Gehiago edo gutxiago guztiok ezagutzen ditugun hamar pertsonaia mitologikoak egingo ditut: Mari, Lamia, Tartalo edo Aideko, esaterako, eta horien deskribapena edota istorioa eramango dute alboan.

Orain dela urte batzuk, Durangoko Azokarekin batera egiten den artisautza azokan txotxongiloen postu batekin egin nuen topo eta izugarritzako atentzioa eman zidaten. Txotxongilo bat erosi nuen, eta horren bueltan hasi nintzen neureak egiten, denbora pasa gisa. Lagunei oparitzeko-eta egin izan ditut bakanen batzuk, baina ez nuen halako proiektu bat martxan jartzeko asmorik. Uztarrian irakurri nuen Sorkuntza Beka jarri zutela abian, eta hori izan zen proiektuarekin hastera bultzatu ninduen. Beka jasota, uste dut beste konpromiso batekin egingo dudala lana; bestela, halako kontuak errazago uzten dira, lanagatik edo denbora faltagatik.

Dagoeneko hasi naiz lanean. Aurpegi guztiak egingo ditut aurrena, denak margotuko ditut ondoren, eta horrela egingo dut pauso guztiekin; lanerako errazagoa baita, txotxongilo bat egin eta gero beste batekin hastea baino. Jostunak diren lagunak ere badituzte eta horiei ere esango diet laguntzeko, txotxongiloak janzterako unean.

Sorkuntza Bekaren balorazio ona egiten dut. Pena da aurkeztu diren proiektu guztiak laguntza jaso ez izana. Hurrengo urterako ondo legoke diru partida pixkat handitzea, proiekturik zintzilik geratu ez dadin.

Aurrera begira, berriz, auskalo. Egindako lanak Azoka Herritik bezalako egitasmoetan



Iban Bergara, txotxongilo baten burua izango dena lantzen.



Felipe Murillo.

saltzea gustatuko litzaidake, baina ezin jakin. Agian proiektu hau amaitu eta hemen bukatuko dut ibilbidea, edo agian ez”.

‘ERRAIK’ DISKOA

|||Felipe Murillo (1987).

“Zoragarri etorri zait”

“Intimoa eta indartsua da *Erraiak*. Barrutik ateratako proiektua da, eta horregatik aukeratu nuen izen hori. Gainera, Danele Sarriugarteren *Erraiak* liburua irakurtzen ari nin-

tzen, eta horrek ere eragin du izena aukeratzekoan.

Azken boladan markatutako terrenoetan aritu naiz lanean, eta gogoia nuen neuk hutsetik zerbait sortzeko. Piano aurrean jartzeko eta zitzaidan orduan, barrenak hustutzeko eta gogoetarako bideak zabaltzeko. Gehiengotan, kanpokoari begiratzen diogu eta barruan duguna bere horretan uzten dugu, ahaztu egiten zaigu. Horregatik, pertsonak izan ohi ditugun sentimenduen gaineko ibilbide hori, etapa ezberdinetan, irudikatuko zuen zerbait egin nahi nuen. Zuloan dagoen pertsona

baten ibilbidea da oinarria, konturatzen dena inguruan duen zerk eragiten dion eta zerk ez. Etapa ezberdinak igarota, hausnarketa baten ostean ondorio batera iristen den pertsonaren ibilbidea, bere miseria eta bertute guztiekin.

Proiektuaren formatua aukeratzekoan, musika bestelako diziplinekin uztartzea pentsatu nuen. Musikarekin, poesiarekin eta irudiarekin jolastea otu zitzaidan, eta horretan lagunduko didate hainbat lagunek. Xabi Arrietak, Itziar Beitiak, Jon Larrañagak, Mikel Zalduak eta Unai Martinezek lagunduko didate musikarekin, eta ITU bandarekin ere harremanetan nago. Ilustrazioei dagokienez, oraindik ezer lotu gabe dut. Asmoa da pertsonaren etapa bakoitza marrazki bidez adieraztea. Uztailean hasiko gara grabatzen, eta proiektua bukatutakoan zuzenekoak emateko asmoa dut. *Erraiak*-ek formatu ezberdinetan plazaratzeko aukera ematen du, eta hori nola egin pentsatu beharko dut.

Sorkuntza Bekaren berri izan nuenean hasita nengoen ideia lantzen eta, ondorioz, zoragarri etorri zait. Oso ideia ona iruditzen zait halako laguntzak ematea, baina pena bat da hamar aurkeztu eta bosti soilik ematea”.

ERRIME TALDEA

||| **Jon Gurrutxaga** (1996), **Unai Martinez** (1996), **Felipe Murillo** (1987), **Asier Aizpuru** (1995), **Paul Beitia** (1997) eta **Patxi Gabilondo** (1997).

“Kultura inbertsioa da”

“Lau azpeitiar eta bi zarauztar gara taldean. Pixka bat aspertuta geunden besteren kan-



Unai Martinez eta Jon Gurrutxaga, Errime taldeko kideak.

tuak jotzeaz, eta iruditu zitzaigun hasi behar ginela geureak egiten. Buruari bueltak ematen eta letrak idazten hasi ginen; Itziar Ugarte eta Beñat Sarasola poeta gazteen letrak ere badira tartean. Azken urteko kontua izan da helburu bat jarrita kantuak sortzen hastea, grabatzeko.

Bost kantuko maketa izango da gurea. Grabaketa bukatu dugu, nahasketak eta masterizazioa falta zaizkigu, baina horrek ez du esan nahi prozesu guztia bukatuta dagoenik. Ateratzeko presarik ere ez dugu, ez dugu eperik zehaztu.

Talde kide batek [Felipe Murillo] beste proiektu bat zuen bere aldetik. Bagenekien hark bekara aurkezteko asmoa zuela eta guri ere probatzeko esan zigun. Eta oso ondo

etorri zaigu beka, bestela igoyal ezingo genuke maketa atera. Jabetu gara ez dugula bitartekorik gure produktu bat ateratzeko, musikariaren egoera nahikoa prekariora dela. Gure garaian dena da prekariora eta sortzaileek ere zenbat zailtasun dituzten, plazara ateratzeko. Oso ohituta gaude ekitaldietan-eta musutruk kantatzera, baina horrek ere badu esplotazioetik, batzutan. Gure letretan ere pixka bat hori jorratzen dugu, guri tokatu zaigun mundua prisma kritikotik begiratu nahian.

Sorkuntza Bekak jendea piztu du, sortzeko gogoaz bazegoela ikusi da. Egitasmo bezala oso positiboa da. Kultura beti gastu bezala ikusten da, baina inbertsioa da, eta benetan uste dugu merezi duela kulturen inbertitzeak”.*

Matrikulazioa irekita
Etorri zaitetz zentru berria ezagutzera!

Uztailean 10:30etatik 13:30etara
Edo hobeto datorkizunean hitzordua eskatuta:
71 777 45 67 edo azpeitia@kidsandus.es

Kids&Us Azpeitia
Loiolako Ignazio Etorbidea, 12
20730 Azpeitia
T. 71 777 45 67
azpeitia.kidsandus.es

Ingelosa 1. urteetik aurrera
COMING SOON
Kids&Us
AZPEITIA

Historia argitara

Saharako historia berreskuratzea da Kultursahar proiektuaren xedea. Horretan lanean ari dira Jabier Alberdi eta Juan Mari Arruabarrena. 📌📷 Maialen Etxaniz

Kultursahar proiektua 2004 urtean jarri zuten martxan, Mendebaldeko Sahararen historia kulturala berreskuratzeke helburuarekin. Andoni Saenz de Buruaga EHUko historia irakaslearen eta proiektuaren zuzendariaren ekimenez abiatu zuten egitasmoa. Kultursahar proiektuan lanean aritu dira hainbat urtez Jabier Alberdi (Azpeitia, 1960) eta Juan Mari Arruabarrena (Azkoitia, 1958) arkeologoak. Antzinako zantzuetatik eta ikerketa zientifikoetatik abiatuta, Sahararen historia kulturala berreskuratzea da egitasmoaren xedea.

Atzera begiratzuz, aurrera

“Bakoitzak bere alea jar dezake Saharari laguntzeko. Guk arkeologia eta kultura aldetik ekarpena egin ahal genuela pentsatu genuen; nondik zetozen jakin dezaten, gero aurrera egiteko. Saharako antzinako bizitza nolakoa zen ezagutzeko ere balioko die gure lanak”, azaldu du Juan Mari Arruabarrenak. Kultursahar proiektuko kideek arkeologiako, antropologiako eta paleoklimako ikerketak egiten dituzte, baina Arruabarrena eta Alberdi arkeologia eta paleoklimaz arduratzen dira; antropologia lanak, aldiz, Andoni Saenz de Buruagak egiten ditu. Proiektuaren zuzendaria urtean bitan joaten da Saharara, otsailan eta irailean, eta hilabete horiek aprobetxatzen ditu hango beduinoak elkarrizkatzeko. Gainerako taldea, hamar lagun ingu-



Kultusahar proiektuko kideak- Behean, ezkerretik aurrera da Alberdi eta hirugarrena da Arruabarrena. ||Maia

ruk osatutakoa, urtean behin joaten da; otsailen, hain zuzen.

“Orduan joaten gara, lanerako garai onena hori dela uste dugulako. Hilabete pasatzen dugu bertan, eta hainbat material eta aztarna jasotzen ditugu, gero horiek ikertzeko”, azaldu du Alberdik. “Gure lana da bilatzen ditugun aztarnategi guzti horietan bildutako informazioarekin fitxak egitea eta urtean zehar egiten dugun lanarekin txostena eta inbentarioa Saharako autoritateei erakusteko eta ematea. Haiak ez dute baliabiderik, horregatik laguntzen diegu guk”, dio Arruabarrenak.

Ondo mantendutako lurra

Lurraldea handia izanik, ikerketa aurrera eramateko marko geografikoa zehaztu behar izan zuten proiektuaren hastapenetan. Tiriseko lurraldeak ezarri zituzten ikerketa gune nagusi bezala. Tindoufeko errefuxiatuen kanpamenduetatik 1.000 kilometrora dago Tiris, Saharako lurralde liberatuen hegoaldean. “Kanpamenduak zibilizazio berriaz kutsatuta daude eta gu antzinako historiaren bila goaz.



Maialen Etxaniz.



Alberdi eta Saenz de Buruaga. || Maialen Etxaniz

Horregatik joaten gara desertuaren hegoaldera”, azaldu dute. Leku “misteriotsua” dela diote, “gutxi kutsatuta” dagoelako.

Saharako lurrak Euskal Herrikoen aldean “oso ezberdinak” direla diote Alberdik eta Arruabarrenak. “Hemen jalkinek antzinako aztarnak tapatzen dituzt; han, baina, aztarna ia guztiak azalean daude. Azken 3.000 urteetako desertizazioaren ondorioz, materiala azalean gelditzen joan da, eta egoera oso onean aurkitzen dira. Labar artea ez, ordea”, azaldu dute.

“Iaz, behe paleolitoko aztarnategi bat bilatu genuen eta material mordoak aurkitu genuen bertan. Horrelako aztarnategiek erakusten dute nolako teknikak erabiltzen zituzten harria lantzeko. Ahalik eta material gehien jasotzen dugu, ahalik eta informazio gehien biltzeko”, esan du Arruabarrenak.

Paleoklima ere aztergai

Paleoklimak historiaurreko klima aztertzen du, eta horretan ere aritzen dira Alberdi eta Arruabarrena. “Paleoklima aztertuta jakin dezakegu zergatik zegoen garai haietan horrenbesteko populazioa. Garai onak ziren, oparokak. Horregatik, lehen lakuak eta ibaiak ziren lekuetan aritzen gara lanean, lurraren laginak eta uretako moskolak hartzen, gero datazioa egiteko. Leku horietan ura noiz arte izan zen jakiten dugu horrela”, azaldu dute. Urteak aurrera, geroz eta datu gehiago bildu dituzte eta hori “positiboa” dela diote. “Horrela, historiaurrean Saharako bizimodua nolakoa zen

jakin eta azaldu ahalko diegu bertako herritarrei”, adierazi dute.

Aztergai duten lurra basamortua bada ere, sorpresa batzuk izan dituzte klimari dagokionez: “Iazko urrian izugarriko euri jasak izan ziren eta belarra ateratzen basamortuan. Ondorioz, hainbat elikagai ere hazi ziren, eta Mauritaniatik jendea hurbildu zen, desertuko trufen bila-eta”, azaldu dute.

Irakatsi bai, ikasi ere bai

“Hasiera batean, proiektuan parte hartzeko deia jasotakoan, gauza asko pasatu zitzaizkidan burutik. Saharara alde egin eta familia hemen uzteak, hara joan eta edozer gertatu ahal zaizula pentsatzeak... zer pentsatua ematen du”, dio Arruabarrenak. Alberdik ere, hasieran “beldurra” sentitu zuela gogoratzen du, baina behin hara joandakoan, “beldur hori galdu” egiten dela diote. Gainera, familiaren babesa badutela eta hori “ezinbestekoa” dela azpimarratu dute.

Laguntzera eta irakastera joaten badira ere, asko ikasi dutela diote bi arkeologoek; izan ere, hura “beste mundu bat” dela ikusi dute. Hala ere, Tindoufeko kanpamenduetako bizitza eta basamortukoa “oso ezberdinak” direla uste dute Arruabarrenak eta Alberdik: “Kanpamenduetan herritarrek beraie-na ez den lurraldean bizi dira, Argelian. Urte asko errefuxiatu moduan igaro dituzte eta ondorioz ohitura asko galdu dituzte. Basamortuan bizi direnek, aldiz, antzinako ohiturak mantentzen dituzte”.

Gatazka politikoan murgilduta dago Sahara, eta hori bizitzea ere egokitu zaie bi arkeologoei. “Helduek badute Sahara libre baten nahia, asko prest daude borrokarako, baina Marokok mundu mailan estrategikoki aliatu asko ditu, eta horren aurrean saharar gazteek beste bide batzuk aukeratu dituzte bizitzeko”, diote. Sahararrek “laguntza gutxi” dutela uste dute biek eta Euskal Herria bezala herri txikia izanik, euren identitatea gal ez dezaten, beren alea jarrita historiaren eta kulturaren transmisioan lagundu nahi diete sahararrei.

Diru-laguntzak zalantzan

Eusko Jaurlaritzak eta EHUk sustengatzen dute ekonomikoki Kultursahar proiektua, eta diru-laguntzen araberakoa izango da egitasmoaren etorkizuna. “Ez jasotzekotan, ezingo dugu proiektua aurrera eraman oraingo baldintzetan”. Hori bai, proiektuaren zuzendaria argi du egitasmoarekin jarraituko duela diru-laguntzak jaso ez edo ez, horretan sinestean duelako”, azaldu dute. ✘

BURUZ BURU

Bere horretan

Hala esaten dit adiskide batek, hain eraman ditugula gizartea eta mundua beste muturreraino, bueltan-bueltan, hasita ez badaude jada, hasi beharrean daudela bere onera etortzen, bere oreka puntura. Zuhurra bezain argia dudanez, lagunari sinesten ahalagintzen natzaio eta bistan da hala dela. Adibidez, edozein multinazionalak argi jartzen dizu bere txokolatea janez sentituko duzun plazerra arduratsua dela elikadura egokiarekin, lurralde garapenarekin eta ingurunearekin. Esne ontziei begiratu besterik ez dago zein baino zein direla bertakoago, garbiago eta arduratsua jakiteko. Detergenteak beraiak ere hain daude ingurunearekiko eta gizakiaren osasunarekiko ardura duten osagarri beteak, non pentsa liteke ur horien hondakinak edan eta guzti egin beharko genituzkeela bizitza osasuntsu bat izateko. Neuk ere, fu eta ke, zigarro bat bestearen ondoan erretzen nuenean, zerriek ere jaten ez zuten lan-

darearen orriak, tabakoa alegia, erretzen nuela eta naturaren oreka egokirako ezinbestekoa nintzela esaten nuen.

Ehiztariak ere, ekologisten diskurtsoarekin inguratu, kaltetu eta gaitzetsiak sentitzen omen dira. Beren izen ona berreskuratzeke erabakia hartu dute, eta horretarako ikerketa bat zabaldu dute. Ikerketak dio zenbat lanpostu sortzen dituzten, zenbat diru uzten duten Euskadin eta Euskaditik kanpo, nola gure ehiztariak batanaz besteko urteko 4.700 euroko gastua egiten duten eta nola biodibertsitatearen bermatzaile apartekoak izan diren, eta diren, armek eragiten duten desberdintasunari aipurik egin gabe eta diruari ezetz esateko modurik ez balego bezala.

Eta zenzenketazaleak! Donostian, Donostia orain eta oraindik ere!, egin behar omen den herri galdeketaen harira atera dute hauek ere beren muturtxoak. Alegia, kulpa guztia eskolan animaliak maitatzen erakusten



ramon etxezarreta

hasi direlako omen dela diote, Walt Disney animaliak hizketan jarri zituelako eta Bambi-aren ama erail zuelako. Sentiberakeria horrek, eta maskoten janari ekoizle multinazionalak eragindakoa omen zezenketen kontrako jarrerera, ez berezkoa, arrazoinamendu baten ondoriozkoa. Ez zaie buruan sartzen gure kulturako hainbat pasarte ederren oinarria den ikuskitzaren kontra egotea; hiltzeko hazi, hezi eta gizendua izan den piztia hil gabe uztea.

Errefinatua, kolorista, musikala, literarioa eta dena delakoa izanik ere zezenketa guztien oinarrian indarkeria, indarkeria odoltsua, dago, *askotan ikuskizuneko elementurik gizakoiena zezena bera izateraino* (Henry James). Hor datozkigu Saninazioak, zezenketa berrero, haur eta mutikoentzat unitate didaktiko eta guzti. Eguzkiak beroa bezala udak Azpeitiaren ikurtzat zezenzaletasuna hartzeko tentaldia jartzen digu muturren aurrean, gauza bere onera etortzen hasi arte.

Ba bai

Ja, ja, Ramon: hori ere bai? Testuingurutik erabat aparte nagoelako izango da, burua eta gorputza beste kontuetan ditudalako; ez nuen espero hortik joko zenuenik. Gertatzen da, askotan, *aurkariaren* maila narratiboa horren dela baxua ezen ezin erantzunda gelditzen dela bat. Pasatu izan zaigu absurdoaren absurdoa uanean bertan ezin eztabaidatu izanaren arren, guretzat ez da sekulara erantzunak otutzea bakardadean, jada berantegi denean, Dostoievski soziopata ezagunak egingo zukeen modura. Pentsatu nahi dut, ordea, pentsatuta idatzi duzula idatzi duzuna, baina ezin uka gehiago espero nuenik.

Probokatzailearen figura berretsi eta Azpeitiko puritano maximoak xaxatzetik haratago argumentu bat ekartzen duzu mahai gainera zezenketen aurka: indarkeria, *per se*. Indarkeria indarkeria delako gaitzestetik hurrunda zu, bada. Estatuaren ordezkari material hutsalena ere biolentzia da. Mugak bio-

lentoak dira, kartzelak ere bai, eta horiexek defendatzeko prestatuta dauden pistoleroak ere bai. Biolentzia biolentzia delako ezabatzea, beraz, baliorik ez duen argumentua da, hasteko. Ikusi beharko genuke indakeria horren jatorria, funts arrazionala eta alternatibarik ba ote dagoen behatu. Izan ere, Henry James dakarkizu eta maxima moral bat berresten inplizituki: biolentzia gaitzetsi egiten duela gizakiak, eta berau erabiltzekotan ondo justifikatuta egon beharko lukeela. Egia esan, baditut dudak horren inguruan. Ez dakit zenbateraino ez ote garen biolentzia-zaleak. Zer eta nola kontsumitzen dugun ikusi besterik ez dago.

Ah, zezenketa! Atzerrian halako faszinazioa unisono bat eragiten duen ikuskizuna da. George Orwell-ek modu dibertigarrian adierazten zuten nola 1937an Katalunia eta Aragoin zenean –Espainiako Guda Zibilean P.O.U.M (Partido Obrero de Unificacion Marxista) miliziarekin borrokan– zezenketa zale



jurgi arruti

galanta izan arren bere burua erreprimitu behar izaten zuen toreatzaile guztiak faxistak zirelako. Euskal Herrian ere argudio anti-espainolista erabili izan da zezenketen aurka. Zezenzaleek argudioari buelta eman eta zezenak Euskal Herrian asmatu zirela erantzun zuten zuzenean; nazionalismo ustelaz.

Berandu samar etorri dira posmodernismo politikoaren erreferentziak: anti-espezismoa, ekologismo integrala eta abarrak, duela urtebete naiftasunez aldarrikatuko nituenak zezenketen aurka. Animaliei ematen zaien status-a (beti arbitrarioa, munduan zehar aldatzen baitoa) ere hor dago. Hots: txakurra gizakia babesteko dago, astoa zama garraiatzeko eta txahala parrilarako. Luze mintzo gintezke zezenketen aurkako argudio posibletan, baina ez dut alde egoteko bat bera identifikatzen. Eta triste da, bai: Udalaren laguntza handiz, esango nuke, zezenketen aldeko grina ugaritzen doala esango nuke Azpeitian.*

Azpeititik kanpora bizi bazara ere
jaso zure etxean herriko berri hilerro-hilero




uztarria

uztarria@uztarria.com

943 15 03 58

Baserritarren festa eguna

Santio Eguna borobiltzeko ekitaldi ugari antolatu dute. Sagardoa edan, eta txekorra eta hegaluzea parrilan erreta dastatu ahalko dira, eta Astotegian ganadu erakusketa izango da.  Ainitze Agirrezabala

Egun osoko festa izango da plazan eta inguruetan, santio egunez egingo den baserritarren egunean. Txistularien eta Udal Musika Bandaren goiz eresiarekin esnatuko da eguna. Frontoi Txikian Ilunpe pilota elkartekoen txapelketako finalak jokatuko dira. Astotegian, berriz, 11:00etatik aurrera, eskualde mailako ganadu erakusketa izango da, eta, plazan, XVIII. Ardi Gazta Lehiaketa.

Jan-edana ere ez da faltako. Usadioari jarraituz, txekor eta hegaluze errearen pintxoak jateko aukera izango da eguerditik aurrera, herriko plazan. Baita 44. sagardo txapelketan parte hartuko duten sagardogileen sagardoa edateko aukera ere. Bien bitartean, plazan kantuan ariko dira hainbat bertsolari.

DATUAK

Zer. Baserritarren eguna.

Eguna. Uztailak 25 (astelehena). **Ordua.** Egun osoko festa **Tokia.** Plazan eta inguruetan.

Antolatzailea. Azpeitiko Udala, herriko hainbat talderekin elkarlanean.

Azken urteetan ohi bezala, bi lehiaketa jokatuko dira sagardoa- ren bueltan, bata herriko elkar- etako ordezkariak epaimahai jar- dungo dutena, eta, bestea, sa- gardozaleen epaimahaiarena.

Arratsaldean ere ez da ekitaldi- rik faltako: haur parkea izango da Olazko Andra Mariaren plazan, eta, zezen-plazan, berriz, errekor- tariak izango dira ikusgai, 18:30ean hasita.*

XLIV

3.000

botila. Hogei sagardogile inguruk hartuko dute parte, eta guztien artean 3.000 botila irekiko dituzte.

2

euro. Sagardoa dastatu nahi duenak plazan salduko diren edalontzia erosi behar du, bi euroren truke.*




Goikabi soziedadeko ordezkari bat sagardoa ateratzen.  Uztarrria

BESTERIK

1 Badator Azpeitia Dantzan Itsasi dantza taldearen 'Bagare' eta Sahatsaren 'Sahatsak 40 urte' ikuskizunak, eta Jose Mari Orbegozoren aretoko dantzak izango dira, besteak beste. **Eguna.** Uztailak 2, 3, 10, 16. **Ordua.** 19:30ean eta 20:00etan **Tokia.** Plazan, plaza txikian eta Soreasun.

2 Ehun milak... Azpeititik Euskal Herriko ultratrail proba Beasainen hasiko da, eta Gipuzkoako hainbat eskualde zeharkatu ostean, Azpeitiatik pasatuko dira lasterkariak. **Eguna.** Uztailak 8 eta 9. **Ordua.** 23:00-08:00.*

 Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

Alar
mertzeria



Loiolako Inazio Hiribidea, 9
Tel.: 688 81 87 78

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Larritaldia:
943 15 16 40

 **ostadar optika**
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

tonbola

uztarria



AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

zozketa azken egunean:

- 4 lagunentzako afaria
- 2 lagunentzako asteburua



lekua:

**Goiko kalean,
Egaña Gozetegiaren
aurrian**



**uztailak
23-24-25
30-31**

**abuztuak
1-2**



ordua:

12:00-15:00

17:00-01:00




Opariak:

- Bi lagunentzako 30 afaritik gora
- Talasoterapiako zirkuituak
- Ile mozketak, tratamenduak...
- MP4ak, argazki kamerak...
- ...

**2 boleto
euro batean**



HITZ GEZIDUNAK

	* Izena	▼	Segituan	▼	Modura	▼	Ahalmenak	▼	Algaraka, karkailaka
	Ermidak		Tripa		Orga mota		Uztaren erdian		
	▶		▼		▼		▼		
	Ez da merkea	▶							
Morroi edo neskame									
* Deitura	▼	Gehiegi	▶	▼			Bokalik gabeko ataria	▶	
Zereginak		Titanioa					Letoniako hiriburua		
▶		▼					▼		
Ehuna	▶					Erraz	▶		
Lehen biak						Bete			
▶		Bokal mehea	▶	Edo	▶	▼	(Infin.) Gurtu	▶	
		Euskal sindikatua		Aurrizkia			... gabe atertu gabe		
1 eta 50	▶	▼	500	▶	▼	Kazakhstan-go hiriburua	▶		
Udalaren egoitza			Musika nota			Talioa			
▶			▼		▼			Nork atzizkia	▶
								Nitrogenoa	
Ohoi, lapur	▶							▼	
						Perukoa	▶		



Egilea:
Luma

* Futbol jokalaria azpeitiarra

SUDOKUA

1	3					4		6
	6		1			7		
		4						2
7				9	5			
	8		6		4		3	
			7	8				9
8						1		
		7			6		2	
4		6					7	8

"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

ildefonso gurrutxaga, 12 behea



||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK |||||

||| JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Testua (testua) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola Ardoak-ek emandako ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



||| LEHIAKETAREN ERANTZUNAK |||||

1 NON AGERTU DA?

2 ZER IREKI DUTE?

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

A	K	N	I	●	E	L	S	V	B	E	●	
K	●	A	E	X	T	E	L	A	D	U		
A	N	A	T	S	A	●	D	●	L	I	●	
R	U	G	●	A	L	A	●	I	●	B	A	
A	S	I	A	●	A	L	A	H	I	O	●	
K	A	R	A	R	A	H	E	B	E	T	E	B
R	●	A	R	E	B	O	B	●	S	●	●	
A	I	L	S	E	A	R	G	●	●	●	●	
K	A	Z	I	L	E	S	A	B	●	●	●	
●	G	●	G	●	B	●	J	●	●	●	●	

SUDOKUA

8	7	3	1	2	9	6	4	5	6	9	8
4	7	2	6	8	5	6	3	1	7	8	5
8	9	2	4	3	7	1	6	5	8	9	2
6	2	1	7	8	3	5	4	9	6	2	1
9	8	5	6	1	4	2	3	7	7	4	3
7	4	3	2	9	5	6	8	1	5	7	4
5	7	4	3	6	9	8	1	2	5	7	4
2	6	9	1	4	8	7	5	3	2	6	9
1	3	8	5	7	2	4	9	6	1	3	8

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Balearrak **2** Katxiporreta

||| UZTARRIAREN EKAINEKO LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Leire Urbietta
Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 184. lehiaketaren irabazlea. Odriozola upategiak emandako ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian lehiaketaren irabazlea, bi ardo botilako sorta eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

Egin klik eta bisitatu gure denda birtuala

www.catandovino.com

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaiá 943860103



ELKARRIZKETA Erika Olaizola (aktorea)

“Frankismoaren auzi sinbolikoa da 'Francoren biLobari gutuna' obra”

Urriaren 31n estreinatuko da *Francoren bilobari gutuna* lana. Obra horretan lanean ari da Erika Olaizola (Azpeitia, 1989), Euskal Herriko Artedrama (Bizkaia), Le Petit Theatre de Pain (Lapurdi) eta Dejabu Panpin Laborategia (Gipuzkoa) antzerki konpainiekin elkarlanean. Horrez gain, ZULO laburmetraiari "zukua ateratzeko prest" dago, Amancay Gaztañagarekin batera.

Nola jaso zenuen *Francoren bilobari gutuna* antzezlanen parte hartzeko deia?

Oso pozik, izugarria izan zen niretzat. Hiru konpainiak elkarlanean aritzen diren hirugarren aldia da hau. Aurrez *Errautsak* eta *Hamlet* antzezlanak egin zituzten, eta horietan parte hartu zuten aktore asko ezagutzen nituen lehendik. Aulestiko antzerki topaketetan izan naiz lau urtez, eta han elkartu izan gara, batzuk irakasle lanetan eta besteak ikasle lanetan ari ginen bitartean. Egun batean, antzezlanaren zuzendariaren deia jaso nuen, eta ezin halako eskaintza bati uko egin.

Zein da obraren ideia nagusia?

Ospitale batean kokatzen da istorioa. Pertsonaia guztiek iraganeko mamuak ezkutatzeko dituzte, guztiek dute iraganeko motxilaren pisua gainean. Pertsonaien gainean dagoen laino beltza da frankismoa, hori da ospitalean arnasten dena. Nazismoak, frankismoak ez bezala, historian zehar izan du auzi bat gizarte mailan. Obra hau, frankismoari egiten zaion auzi sinbolikoa da.

Estreinaldiaren ondorengo agendaren berririk ba al duzu?



Luhuson estreinatuko da lehen aldiz obra, eta udazkenetik maiatzera 40-50 emanaldi inguru eskainiko ditugu. Azpeitira ere egin beharko dugu bueltaren bat...

ZULO ere elkarlanean erai-ki duzun proiektua da.

Amancay Gaztañaga eta biok Donostiako Aste Nagustian kafe bat hartzen ari ginela otu zitzaigun ideia. Erraldoien eta buruhandien erdian topatu ginen bat-batean, eta hori izan zen gure inspirazio iturria. Lagun arteko ideia zoro batetik abiatutako proiektua izan da, maitasun askorekin egin duguna.

Zein da obraren ideia nagusia?

Motzean esanda, buruhandi baten eta gizaki baten arteko maitasun istorio bat da.

Ikus-entzunezkoa amaituta, zer asmo dituzue orain?

Helburua da ZULO mundu mailan ahalik eta gehien zabaltzea, maitasun askorekin egin dugulako. Horretarako, informatu egin behar gara, ikus-entzunezkoen jaialdietara nola iritsi jakiteko. Orain atek jotzea tokatzen zaigu.✘

EFEMERIDEAK

1610

Uztailaren 31, San Inazio Eguna, jaieguna.

Herriak egindako eskaerari erantzunez, Iruñeko apezpikuak jaieguna izendatu zuen.

1865

Karmelo Etxegarai jaio zen.

Uztailaren 3an munduratu zen, eta idazlea izan zen, besteak beste.

1917

Debekua.

Zekorketak bertan behera uztea erabaki zuen Azpeitiko Udalak, Errepublikaren aurkako altxamendua hasi baitzen.

1986

Urola Trena. Uztailaren 13an moztu zuen bidaiarien zerbitzua.

✎ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historiko zehar liburua.

||| **Egilea:** Imanol Elias Odriozola.

||| **Argitaratzailea:** Uztarria Kultur Koordinakundea.✘

KOLORAZIO SISTEMA BOTANIKOA
% 100 BELAR OSAGAIKIN
% 100 PRODUKTU NATURALAK

ILEAPAINDEGI BIOLOGIKOA
ANA.bio
ILEAPAINDEGIA
AGIRRE AUZUNEA, 1 AZPEITIA • TEL. 943 503 936 • ANA.bio

Entsalada

Entsaladak sukaldeko erreginak bihurtzen zaizkigu udaberrian eta udan. Barazkiak gordink jatearen abantailetakoa bat da bitaminak eta mineralak askoz hobeto mantentzen direla. Sukaldata gabe daudenez, barazki horien elikagaiak ez dira suntsitzen, eta ia ehuneko ehunean mantentzen dira kontsumitzeko garaian.

Bigarren plater baten –haragia, arraina...– lagun-garri izan daitezke, edo plater bakar bezala jan gaitzakke. Horretarako, osagai ezberdinen konbinazio aproposa eta orekatua beharrezkoa dugu, nutritiboki egokiak izateko. Zenbat aldiz entzun izan ote dut entsalada bat letxugarekin, tomatearekin eta beste zerbaitekin soilik osaturik dagoela.

Mila era ditugu erraz, azkar eta osasuntsu prestatzeko. Horretarako, plateraren metodoa erabili dezakegu, platera lau zati berdinetan banatuz. Plateraren erdia barazkiekin –letxuga, tomatea, txanpinoiak, alkatxofa, azenarioa, esparragoa...– bete. Plateraren zati batean janari proteikoak –haragia, arraina, arraultza, egoskariak...– jarri, eta beste zati batean karbohidratoak –pasta, arroza, patata, ogia...–. Horiek integralak badira askoz ere hobe. Gogoratu pasta edo patata baino barazki gehiago izan behar duela.

On egin dagizula!*



|||||||aitziber aizpuru|||

SUSANA BILDOSOLA dermatologoa



1. Azala eguzkitik babesteko aholkua...

Eguzkia hartuz gozatzea, baina beti babestuta.

2. Jendea kontziente da?

Bai, baina paseatzerakoan, esaterako, oraindik jendeak ez du krema ematen.

3. Solarium kabinak...

Azalak memoria du; eguzki orduak metatuz doaz.

4. Eguzkia hartu eta, gero, zer tratamendu?

Dutxatu eta gorputzean krema hidratatzailea eman.

5. Erredurengatik tratatu duzun kasu larriena?

Uretan sartuta uste zuen ez ziola eguzkiak emango; anpoila galantak zituen.

6. Olioia, kremak...

Protektzio altuko kremak erosten ditu jendeak, baina bi orduz behin eta kantitate gehiago eman behar da.*

✉ Ainitze Agirrezabala

La Primavera da Jonny
pizzeria

943 083 460

facebook.com/laprimaveradajonny

Xabier
margoak

Pinturak eta Parket Laminatuak

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

adi
ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 28 08
artetadiseinu@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik

Iuba
aholkularitza

Aholkularitza
- fiskala
- laborala
- kontabilitate

Gestioi lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inbiliarria

Tel: 943 157 325 Fax: 943 157 273
Euzkadi kalea, 45 • Irujo 41001/101

IRAUR
MASAJE - OSTEOPATIA

Bustinzuriko Errebala 13, atzea
Mug. 676 299 320

- Kirol Masajeak
- Drainadura linfatikoa
- Oineko erreflexologia
- Masaje terapeutikoak

Osteopatia
- Estrukturala
- Digestiboa
- Sakro eta Garezurrekoa

Ahaztu baino lehen

Memoria historikoa berreskuratzeko lanean jarraitzen dute Azpeitiko Udalak eta Aranzadik, denboran urrunekoa zein oso gertukoa. ✍ Mailo Oiarzabal

Azpeitian 1960 eta 2014 bitartean izandako giza eskubideen urraketak jasotzen dituen txostena Udal Artxibategian dago joan den maiatzetik. Aranzadi Zientzia Elkarteak egin du lana, Udalarekin duen hitzarmenaren baitan. Aurrez, Gerra Zibilaren eta gerraondoko lehen urteen memoria berreskuratzeko lana egin zuen Aranzadik. Eusko Jaurlaritzak XX. mendean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan gatazka politikoaren ondorioak pairatu dituztenen memoria herriz herri jasotzeko ezarrita dituen irizpideen arabera, beraz, Azpeitian 1945 eta 1960 artean gertatutakoak jasotzea falta da. Epe horren gaineko ikerketari datorren urtean eusteko asmoa dute Aranzadik eta Udalak. "Hori falta da, erradiografia osoa jakiteko", dio Javi Bucés (Sevilla, Espainia, 1982) zientzia elkarteko ikertzaileak.

1936 eta 1945 arteko memoriaren ikerketa bi liburutan gorde eta zabaldu du Udalak, baina halakorik ez dute egingo 1960tik 2014ra doan epean izandako eskubide urraketekin. Oraingo honetan, jasotako dokumentazio guztia digitalizatu eta Udalaren esku utzi du Aranzadik, Udal Artxibategian gorde dezan. Kontsultagai dago informazioa, baina txostena kontsultatu ahal izateko prozedura "zorrotza" ezarri dutela nabarmendu du Bucések, "konfidentzialtasuna gordetze"ko. Bera izan da bi ikerketak egiteaz ardura tu dena eta honela azaltzen ditu arrazoiak:

"Datuak oso sentsibleak dira. Ez dira Gerra Zibilekoak edo frankismoaren lehen garaietakoak bezala. Testigantza eman dutenak, familiak... denak edo gehienak bizirik daude oraindik. Gertaera jazo berriak dira, duela gutxiak. Datuak kontsultatu ditzakete ikerlariek eta udaletxean bertan, baina jarraitu beharreko prozedura oso zehatza da eta Udaleko Idazkariaren bitartekaritzaekin egin behar dute".

150 kasu, 14 testigantza

2015eko otsailean aurkeztu zuten Udalak eta Aranzadik 1960 eta 2014 urteen bitartean Azpeitian izandako giza eskubideen urraketaren txostena, eta urtebete pasatxo ondoren jarri dute dokumentazio osoa udaletxeko artxihoan, kontsultarako prest. Urtebete horretan datu berriren bat gehitu diote txostenari, baina "ez asko", Javi Bucésen esanetan. "Agertu da jende berria bere historiarekin, baina aldaketa txikiak dira. Denbora honetan, gure lana zuzenketak egitea, datu basea osatzea eta grabazio guztiak editatzea izan da, batez ere. Eta, horiekin batera, kontsultarako prozedura zehaztea".

Horrela, guztira urraketaren bat jasan duten 150 pertsona identifikatu eta 14 testigantza jaso dituzte. Urraketa motak eta horiek jasandakoak, berriz, zazpi multzotan banatu dituzte: bizitza eskubidearen aurkako urraketak (13, guztira); ikerketzen ari diren

hiletak (2, Dionisio Aizpururena eta Pedro Mari Isartena); osotasun fisiko, psikiko edo moralaren aurkako urraketak (83); herritarren aurka egindako mehatxu larriak (19); herritarren aurka egindako estortsio ekonomikoa (5); beste sufrimendu batzuk (3); eta gaur egungo urraketak, dispersatutako presoak (3).

Biktima eta testigantza kopuruen artean dagoen aldea nabarmena den arren, Bucések uste du era honetako ikerketa bat izateko 14 elkarrizketa "portzentaje ona" dela: "Oso zaila da jendea bere esperientzia kontatzeko kamera aurrean jartzea. Nik uste dut 14 elkarrizketa horietan giza eskubideen urraketa desberdinak daudela eta, orduan, panoramika edo erradiografia ona osatzen dute".

Ikerketa, zabalik

Txostena osatu eta kontsultatzeko pronto jarri dute, baina ikerketa ez dagoela itxita nabarmendu nahi izan dute bai Udalak eta bai Aranzadik. "Irekita dago, ez dagoelako jende guztia sartuta –dio Javi Bucések–. Duela gutxi kontuak dira, oso gai delikatuak da, eta seguru asko badago jende gehiago, txostenean agertzen direnez gain". Kasu edota datu berriak agertuz gero, Aranzadik horiek dokumentatu eta sortuta dagoen datu basea gehituko ditu.

Dokumentatu dituzten urraketaren artean oraindik gertatzen ari direnak ere badaude,



Javi Bucés, Eneko Etxeberria eta Paco Etxeberria, txostena Udal Artxibategian utziko zutela iragartzeko eman zuten prentsaurrekoan. ■■■Maialen Etxaniz

sakabanatutako presoenak eta haien familienak, esaterako. "Hor jarraipena egiten segitu behar" dutela dio Aranzadiko ikerlariak.

Gerra Zibilekoak eta gerraondokoak jasotzerakoan arazo handienetakoa urteen joana zen bezala, urraketen gertutasuna da oztopo nagusia 1960-2014 epearen ikertzaileen zat. 1936-1945 tartekoa ez bezala, orain testigantza eman dezakeen jendea hor dago, baina asko dira "oraindik hitz egitea nahi ez" dutenak, "emozionalki" horretarako prest ez

daudenak. Bucésen arabera, "ez da beldurra dutelako, beldurrik ez dago ia, baina oso berria da eta jendea bizi da, biktimak eta borre-roak. Oso konplexua da eta hirugarren pertsonak ere tartean daude". Baina denbora aurrea doan heinean, iragan urrunagoan gertatutakoak jasotzerakoan topatu dituzten zailtasunak errepikatze arriskua ikusten du ikertzaileak. "Garai bakoitzak bere zailtasunak ditu. Elkarrizketak egiten dituzunean, jendea negarrez eta sufrizten ikusten duzu.

Azpeitia, eredu

1960 eta 2014 urteen arteko memoria landu duten udalen artean aitzindaria izan da Azpeitikoa. Javi Bucésentzat, "Azpeitiko Udala oso konprometituta dago memoria historikoa berreskuratzeko lanean, eta eredu bat da Euskal Herrian, dudarik gabe".

Historialariak dio asko direla Gerra Zibileko aroaren eta frankismoaren lehen urteen memoria jasotzen ari diren udalerriak, "baina bigarren frankismoa eta azken urteetako gatazka ez da mugitzen. Hori ez zaio interesatzen inori. Gaia oso konplexua da eta normalean udalek ez dute nahi izaten". Horregatik nabarmentzen du Azpeitiko Udalak erakutsi duen "ausardia". Tolosa da gatazkaren azken epe hori ikertu duen beste udala; aurten bukatuko dituzte hango lanak Aranzadikoek. Ondoren, ez daukate aurreikusita epe horren gaineko beste ikerketarik egitea. ✖

Baina denbora pasatzen uzten baduzu, gero, agian, berandu izan daiteke, Gerra Zibilarekin gertatu den bezala. Eta gure lana dena erregistratzea da, egia jakiteko eta informazio osoa jasota edukitzeko, etorkizunean nahi duenak eskura izan dezan", azaldu du Javi Bucés.

Horretan ahalegindu dira eta ahalegintzen ari dira, beraz, Udala eta Aranzadi. Gertatutakoa jasotzen, gordetzen, ahaztu baino lehen. ✖

KIMU BAT
GARDEN *berria!*

KIMU BAT 25 urte
Urrestila bidea, Azpeitia
943 15 00 85

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	813069
KIUB	15 72 01

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Uztailaren 27an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Igerilekua	81 41 21	EAJ	81 55 70
Emakumeen Txokoa	15 70 55	Sortu	15 72 00
Ertzaintza-Azkoitia	083780	EA	81 00 11
Baigera I	81 51 71	Aralar	647 42 59 95
Baigera II	81 23 89		
Epaitegia	02 51 91	SINDIKATUAK	
Ingurugiro Etxea	81 24 48	ELA	81 34 46

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00		
Anbulator. larrialdiak	02 54 01	KULTURA-EUSKARA	
Eguneko zentroa	15 74 96	Sanagustin	10 52 20
Asepeyo	8144 00	Kultur Mahaia	674 16 56 84
Gurutze Gorria	85 32 97	Euskara Patronatua	81 45 18
DYA-Donostia	46 46 22	Natul euskara taldea	661 10 44 46

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58	Udal Euskaltegia	81 19 47
Hitza (Azpeitia)	81 38 41	Udal Liburutegia	15 71 95
Hitza (Zarautz)	8900 17	Loiolako Liburutegia	8165 08
Azpeitian Zer?	080688	Kontseilua	943 59 12 00
Erlo Tebista (Azpeitia)	81 53 35	Bai Euskarari	902 43 00 26
Berria	943 30 40 30	IKASTETXEAK	
Gara	943 31 69 99	Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Noticias (berriemailea)	627 23 54 48	Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
DV (berriemailea)	610 81 29 12	Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Argia	943 37 15 45	Ikasberri	15 12 46
Arrate Irratia	943 12 01 73	Karmelo Etxegarai	81 26 97
Euskadi Irratia	943 01 23 00	Urola BHI	15 02 28
ETB	943 01 17 05	Uztaro	81 31 90

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00	BESTERIK	
		Xoxoteko aterpea	58 10 07
		Eregi	943 08 06 88

FARMAZIAK (UZTAILA)

EGUNEZ

1-7-12-19-27-29
Alberdi (Azpeitia).
943815974

2-3-8-13-15-18-23-24-25
Beristain (Azpeitia).
943811949

4
Jacome (Azpeitia).
943080258

5-11-16-17-20-22
Aranburu (Azpeitia).
943 811350

6-9-10-14-21-26-28-30-31
Eizagirre (Azpeitia).
943811274

GAUEZ, URTE OSOAN
Jacome (Azpeitia).
943 080258

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOIA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: 11:00-20:00 KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30.

ERABILGARRI



eLiburutegia

The screenshot shows the eLiburutegia website interface. At the top, there are language options (eu, es, en) and navigation links for 'eLiburutegia' and 'Katalogoa'. Below this, there is a search bar with the placeholder text 'Tituluagatik edo egileagatik bilatu'. The main content area is divided into two sections: 'Gaikakoak' (Featured) and 'Gomendioak' (Recommendations). The 'Gaikakoak' section lists various book categories with their respective counts, such as 'Abenturazko eleberria (170)', 'Artea, zinea eta argazkigintza (111)', 'Beldurrezko eleberria (98)', 'Bidaia liburu eta gidak (188)', 'Biografiak (338)', 'Eleberri beltza eta intrigazkoa (733)', 'Eleberri erotikoa (86)', 'Eleberri erromantikoa (401)', 'Eleberri historikoa (320)', 'Eleberria (3558)', 'Etxea, eskulanak eta beste zaletasunak (47)', 'Filosofia eta erlijioa (546)', 'Gizarte zientziak, hezkuntza eta politika (424)', 'Haur eta gazte literatura (1578)', 'Haur eta gazteentzako ez fikzioa (88)', 'Historia (247)', 'Hizkuntza eta literatura (905)', 'Informatica eta internet (22)', 'Kiroia (35)', 'Komikiak eta eleberri grafikoak (47)', and 'Kontakizun laburrak (735)'. The 'Gomendioak' section displays several book covers, including 'Cosas que he callado' by Nafisi, Azar; 'Diario de un hombre superior' by Turguendev, Niri; 'Francisco Franco' by Nafisi, Azar; and 'Gure Guretzako Herriak' by Nafisi, Azar.

▲ SAREKO LIBURUAK.

Udal Liburutegiko erabiltzaileek orain euskarri digitaletarako edo 'streaming' bidez irakurtzeko liburuak ere har ditzakete maileguan, eLiburutegia izeneko zerbitzua baliatuz.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

ALEX SARASUA

Changzhou, Jiangsu (Txina)

“klase arteko ezberdintasunak harritu nau gehien”

Lan eskaintza medio, bi urte daramatza Txinan. Txinera ikasita, beste pare bat urtezhan geratzeko asmoa du. 📌 **Maialen Etxaniz**

Eta bat-batean Txinara. Nolaz?

Lan egiten dudan enpresak Txinan filiala din eta lan eskaintza batengatik etorri nindunan. Urtea pasatu dun hona iritsi nintzenetik.

Hango zerk harritu hau gehien?

Klase ezberdintasunak. Klean maila goreneko autoak ikus daitezke, Lamborghiniak kasu. Metro batzuetara, aldiz, txinatar bat pedalezko gurdia eramaten, gainean izugarriko pixuarekin. Shanghain, esaterako, sekulako eraikinak eta marka esanguratsuak ikusi daitezke, eta hamar metro urrunduz gero, argirik ere ez duten etxeak eta txabolak.

Zer ekarriko huke Txinatik Azpeitira? Eta alderantziz?

Zerbitzuen arloan duten prestutasuna. Internet bidez egiten diren erosketak askoz bizkorragoak izan ei dun. Garraio publikoa ere oso merkea dun, behin ordubeteko bidaia bat 10 zentimo kobratu zidatenan. Bestalde, arkitektura arloan maila handia diten. Aldiz, Azpeititik ekarriko nizkinake, besteak beste, lagunak eta familia, mendiak, hizkuntza, jantaria, jendeak lanerako duen gogoak, pintxo poitea eta juergak.

Zer moduz hizkuntzarekin?

Hasieran zaila egin zitzaidan. Ni bizi nauten lekuan ia inork ez din ingelesa hitz egiten. Egunerokotasuneko bizitzan harremanetzeko ezinbestekoa dun txinera jakitea, keinu bidez komunikatzea nahi ez badun, behintzat. Denborarekin txinatarrez ikasi dinat, eta elkarrizketa arrunt bat mantentzeko gai naun.

Zein lekuetara bidaiatu duk?


Leku asko bisitatu dizkinat. Gehien gustatu zaizkidan lekuak Huzhou hiri txikia eta Shanghai ditun. Azken hori festarako leku aproposena dun. Pekinen, Suzhou Nanjingen, Hangzhoun, eta Xiamen ere izan naun.

Ezagutzen al ditek txinatarrek Euskal Herria?

Nik ezagutu ditudan txinatarren gehiengoak ez din Euskal Herria ezagutzen, eta ezagutzen diten gutxi horiek beste kanpotarrek Euskal Herriaz hitz egin dietelako dun. Pena dun, baina halaxe dun.

Bueltatzeko asmorik ba al duk?

Beste pare bat urtez gelditzeko asmoa dinat, baina ez dinat askoz gehiago luzatuko. Azpeitia asko botatzen dinat faltan.*



1. Txinako harresian. 2. Tenplu batera egindako bisitan. 3. Changzhou herriko etxe orratz batean ateratako argazkia.

9.818 kilometrara dago Changzhou.



Porrot

U

da baino lehen etorri zaizkigu notiziak, alabak ekarriak. Beraren koadrilako Andreak negar egin duela ikasturteko azkeneko egunean, ikasturtea errepikatu beharko ote duen. Lau ikasgai ditu errekupe-ratzeko zain. Ekainean bertan zituen egitekoak ezohiko azterketak, eta gaindituko zituen bat edo bi edo hiru edo lau. Afaltzen ari ginea la esan digu Andreak gure matrakak, eta gustu txarra utzi dit aditu diodan orduko. Errepikatu, eta zertarako, neska argiak zertan errepikatu behar du. Zertan ez dute bakean uzten, eta bere bidea egiten laguntzen. Bere bidea egin behar duelako Andreak, errepikatze eta gainditu gabeko zera guztiak gorabehera. Errepikatzeak ez diolako onik egingo, aurten, institutuko lehenengo urtean, egin dituen lagun onak galdu besterik ez. Horixe mesedea. Gure matrakaren beste ikaskide batek egin duen bideak ez du esperantza handirik ematen. Paulok bi kurtso ditu errepikatuak. Nonbait, ikastolan zela, institutura baino lehen, bosgarren edo seigarren maila errepikarazi zioten. Institutura hasi, eta lehenengo errepikatzen ari da. Ari dira, datorren urtean "espezifikoa" egingo ote duen. Guk ez dakigu zer den delako espezifikoa. Edo den bazter talde batean baztertu gehiagorekin batera baztertzea, edo berarentzat propio diseinatutako curriculumak betetzeko bidean jarriko duten. Kanpotik, ezin jakin guk familiak bat egingo ote duen semearentzat prestatzen ari diren espezifikotasunean. Ezin jakin, espezifikoa gabe ere, Paulok girorik duen etxean. Izan ere, jakin, guk ez dakigu ezer, gure alabarentzat eta gure alabaren lagunentzat onena nahi dugula besterik. Eta esperientziak esaten digula kurtsoa errepikatzeak ez duela mesederik ekartzen, ikasleak bere bidea egin behar duela, eta bide horretan eskolak egokitu behar duela dena delako ikaslearen premietara. Horretara jo behar duela eskolak. Alferrik ari direla Espainiako gobernutik Gasteizera irakasleei lanordu gehia-




|||||||miel a. elustondo|||

||| (...) eskolarena izango da porrota, gurea, sistema aldrebes honi laguntzen diogun guztiona

go agintzen, ez baita ordu gorabehera, ikuspegi kontua baizik. Baina atzerako pauso hori ere etorri zen Espainiako gobernutik joan den ekainean, gure umeak liburuak etxera zekartzaten garaian, irakasleak agur-bazkariak egiten ari ziren sasoiari, politikariak boto eske zebiltzanean jo eta ke. Politikari gizajokak. Hezkuntza sailburuak lau urte eman ditu Espainiako gobernuaren hezkuntza legea burukomin hartuta, eta irakasteko sistemaren inguruan doministikurik ere egin gabe. Eta horrela, Andreak negarrez, zoritxarreko, kurtsoa errepikatu beharko ote duen kezkatu, beldurrez. Pertsona zoriontsuak nahi omen ditugu. Paulo, eskola porrotera kondenatua. Bereaien bidean laguntzen ez dien birtartean, eskolarena izango da porrota, gurea, sistema aldrebes honi laguntzen diogun guztiona. Aspaldi esan zuten, porrotetik porrotera, azkeneko porrot handira arte. ✘



AZPEITIA **UZTAILAK 25, ASTELEHENA** **BASERRITARREN** **EGUNA**



10:00etan XXXII. CESAR VALVERDE TXAPELKETA FINALA, Frontoi Txikian.

Kategoriak: Aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak eta afizionatuak.

Antolatzailea: Ilunpe Pilota Elkarte.

10:30ean GOIZ ERESIA, Azpeitiko Musika Bandaren eta Izarraitz Txistulari Taldearen eskutik.

11:00etan EUSKADI MAILAKO BLONDA TXAPELKETA XVIII. GAZTA LEHIAKETA Idiazabal jatorri deituraren barne dagoen artzain gaztak parte hartu ahal izango du.

Hasparnekoei harrera eta ongi etorria. Baserritar egunean ekintza ezberdinetan parte hartuko dute egunean zehar.

11:30ean Nafarroako banderari omenaldia. Perez Arregi plazatik Plaza Nagusira kalejira eta ondoren ohorezko dantza. Antolatzailea: Azpeitiko Napar Zuzterrak.

12:00etan XLIV. SAGARDO LEHIAKETA, Plaza Nagusian.

Sagardo festa honetan, sagardoarekin batera, bezperan prestatzen hasitako txekor errea dastatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren herritar guztiak. Era berean, aurten parrillan eginiko hegaluzearen dastatzea izango dugu. Bildutako dirua hirugarren mundura zuzenduko da.

Aldi berean, Laja (aita-semeak), Luzurditxo eta Berastegi trikitilariak beren doinu eta kantuez alaituko gaituzte.

18:00etan KANTU POTEOA, San Martin egoitzatik hasita.

18:30ean ERREKORTARIAK, zezen plazan.

19:30etatik 22:30etara JAINEKIN TXARANGAREN musika alaia, kaleetan zehar.

**ZATOZ, BASERRITARREN
EGUNA GIRO ONEAN
OSPAZERA!**

AURRETIK



ONDOREN



BILMENDI S.L.
 ERA GUZTIETAKO ERREFORMAK
 ALBERTO FRANTZESENA - Harreman komertziala
 alberto@bilmendi.com
 Tel: 626 38 23 06 - 943 15 78 21



GRUPO
 **horzkari**
 hortz osasun klinika

Iberotarren plaza, 4 behea
 Azpeitia
 T. 943 81 50 52

Zatoz teknika berritzaileena ezagutzera

SEDAZIO KONTZIENTEA

Teknika honen bidez hortz klinikara
 etortzeak sortzen duen beldurra eta estresa
 albo batera utziko dituzu

Minik gabe
 eta lasaitasun osoz

Proba ezazu doan



www.grupohorzkari.com